

AIARALDEA *hemen*



OXIGENOA EUSKARARI:
**“Bi herriren arteko zubiak
eraikitzen joango gara
Himalayara”** 17 or.

KULTURA:
**40 talde baino gehiago
aurkeztu dira dagoeneko
Amurrirockera** 14 or.



Gerratik ihesi, Siriatik Aiaraidera

AIARALDEA 2

**Greba egingo dute
Tubacexen, LAB, USO eta
STATEk deituta**
Fabrikako beharginek ez dute
zuzendaritzaren proposamena
onartu

LAUDIO 4

**Kooperatiba sortu dute
hainbat ikaslek Greziako
errefuxiatuei laguntzeko**
Laudio Ikastolako 59 ikasleren
artean sortu dute egitasmoa eta
hasi dira ekintzak egiten

AMURRIO 6

**Tubos Reunidos zigortu
dute amiantoari lotutako
kasu batengatik**
Minbiziak jota hil zen langile
baten familiari kalte-ordaina
eman beharko dio enpresak

SARATXO 7

**Saihesbiderako proiektu
tekniko alternatiboa
aurkeztu dute**
Saratxo Bizirik plataformak
aurkeztu du eta lurrazal
gutxiago okupatuko luke

KIROLA 16

**Ba!goaz telebista saloan
ari da Sabin Guaresti
amurriarra**
Kalean jotzen ibilbide oparoa
egin du eta proiektu berriak
ditu esku artean



**IKASTETXE
ETARAKO
NEURRIRAKO
ARROPA ETA
OSAGARRIAK**

AMANTALAK, KAMISETAK,
KUTXATILAK, MOTXILAK,
URONTZIAK, ETAB.///
NAHIERAN
PERTSONALIZATUTA

GUREN
ERE
EUSKARAZI



G! Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

herriz herri

Aiaraldea

Greba deitu dute ostiral honetarako -apirilak 13- LAB, USO eta STAT sindikatuek Tubacexek Aiaraldean dituen bi lantegietan. Zuzendaritza negoziazio-mahaian eseraraztea izango da lanuzteen helburua, baldintza hobeto jasoko dituen lan-hitzarmena sinatzeko. Enpresak adierazi du ez duela akordioa hobetzeko asmorik.

Ostiralean greba egingo dute Tubacexen, lan-hitzarmena borrokatzeko



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Azken asteak nahiko gorabeheratsuak izan dira Tubacexek Aiaraldean dituen bi lantegietan. Lan-hitzarmena izan da sortu diren eztabaida, desadostasun eta mugimendu guztien kausa.

Martxoa erdialdean hasi zen dena, ELA, CCOO eta Independentek lan-hitzarmen berria sinatu zutenean enpresaren zuzendaritzarekin. "Enplegu finkoa, errelebo-kontratuak eta soldatetan hobekuntzak" barnebiltzen zituen akordio horrek, zuzendaritzaren aburuz.

Baina STAT, USO eta LAB sindikatuek iritzi ezberdina zuten. Oharra plazaratu zuten hiru sindikatuek, lan-hitzarmena sinatzeko prozeduran egondako irregulartasunak azaltzeko eta "ezinbestekoak" ziren zenbait puntu akordiotik kanpo utzi zituztela salatzen. Euren ustez, enpresak apirila baino lehen sinatu nahi zuen akordioa, hilabete horretan aurkeztu direlako 2018ko lehen hiruhilekoko datu ekonomikoak. "Sinatutako akordioak ez du konpontzen zuzendaritzak azken lau urteetan gehiegikeriaz erabili duen lan-malgutasuna, behin-behinekotasunak sortutako prekarietatea edota aparteko orduen areagotzea", azaldu zuen LAB sindikatuak. Horregatik guztiatik, akordioaren aurka bozkatzeko deia luzatu zieten hiru sindikatuek langileei.

Langileen gehiengoa, aurka

Aste Santua iristear zela egin zuten langileen batzarra, erdie-tsitako lan-hitzarmena bozkatzeko. 740 behargin bertaratu ziren zitarra, eta gehiengoak -392- akordioaren aurkako botoa eman zuen. 327 pertsonak bozkatu zuten alde eta 14 boto zuri eta 7 nulu egon ziren.

Enpresaren zuzendaritzak oso azkar erantzun zion langileek hartutako erabakiari. Mehatxu argia egin zien beharginei, akordioa



Bi lantoki ditu Tubacexek eskualdean, Laudion eta Amurrian. Arabako Foru Aldundia

Langileek gehiengoak bozkatu zuen ELA, CCOO eta Independentek enpresarekin sinatutako lan-hitzarmenaren aurka

mahai gainean 30 egunez izango zuela adierazita. Epe hori igarota langileek akordioa onartzen ez bazuten enpresak ez zituen bere gain hartuko dokumentuan zehaztutako konpromisoak. "Inbertsioetan, aurrejubilazio planetan eta enplegu finkoan eragin zuzena izango luke horrek", jakinarazi zuen zuzendaritzak langileei zabal-

duetako oharrean.

Beste ohar batekin erantzun zioten LAB, USO eta STAT sindikatuek zuzendaritzaren mehatxuei. "Indar gehiagorekin" negoziatzeko borondatea erakutsi zuten hiru sindikatuek, eta nabarmendu zuten hainbat puntu jarri behar zirela hitzarmenaren negoziatio-mahaian gainean: soldaten igoera, lan finkoa sendotzea, behin-behineko langileen baldintzak hobetzea, segurtasuna bermatzea eta makineria eskualdeko lantegitik atzerriera ez eramatea. Hiru sindikatuak aburuz, 50 lanpostu finko suntsitu dira aurreko hitzarmena sinatu zenetik eta 250 behin-behineko langile aritzen dira Tubacexen Laudion eta Amurrioko faktoretan.

Zuzendaritzak, baina, negoziatzeko borondaterik ez zuela adierazi zuen. Horren aurrean, STAT, USO eta LAB sindikatuek

Zuzendaritzak adierazi du ez duela negoziatuko

Iaz 1,45 milioi euro banatu zituzten administrazio kontseiluko kideen artean

greba deitu dute ostiral honetarako, eta ez dute baztertzeko beste bi lanuzte gehiago ere egitea hurrengo ostiraletan. ELA, CCOO eta Independentek, aldiz, afiliatuekin zehaztutako grebarekin bat egin edo ez. Enpresak, bere

aldetik, akziodunen batzarra deitu du maiatzaren 4rako.

1,45 milioi zuzendaritzara

Gatazkak gatazka, onura handiak izan ditu Tubacexek azken urteetan. Iaz 490,4 milioi euroko salmentekin itxi zuen urtea. Etor-kizun oparoa du gainera: 700 milioi eurotan baloratutako eskaerak ditu esku artean. Hor dago Iranekin sinatutako 500 milioi euroko akordioa, momentuz etenda dagoen arren. Lortutako emaitzek eragina izan dute zuzendaritzako goi-karguen soldatetan. Jesus Esmoris Esmoris kontseilari delegatuak 462.000 euro jaso zituen iaz, 2016an baino 4.000 euro gehiago. Tubacexeko presidentea den Alvaro Videgain Murok, aldiz, 246.000 euro eskuratu zituen. Guztira 1,45 milioi euro banatu zituzten administrazio kontseiluko hamabi kideen artean.

Orozko

“Ortu ekologikoarekin baliabide gehiago eman nahi dizkiogu ikastetxeari”



Rafa Etxebarria baratzean, hainbat umerekin. Urtzi Vera

RAFA ETXEBARRIAK (Orozko, 1967) HERRIKO IKASTETXEAN BARATZE EKOLOGIKOA SUSTATU DU HAINBAT GURASOREKIN. ORAIN DEIALDIA ZABALDU DUTE HERRITARREN LAGUNTZA JASOTZEKO.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Zertan datza Orozkoko eskola-ko ortu proiektua?

Eskolari beste tresna bat ematea da helburua, guraso batzuen partetik hasi zen, eskolak daukan baliabideak erabilita.

Zer da orain eskatu berri duzuen?

Orozkoko haziak gaude biltzen, hainbat ortuzaleei eskatu dizkiegu, baita postontzi batzuk prestatu ere, eskolan eta herriko beste puntuetan jarritakoak, nor-

berak bere haziak uzteko... Gertu hazi diren landareak hobeto eraldatuko direlakoan gaude, irizpide ekologikoak erabiltzen ditugu eta.

Zer bide jarrai daitezke parte hartzeko ekimenean?

Postontzira edo ortuan ibiltzen garenongana hurbildu, haziak eta haren informazioagaz; espeziea, beharrak, zenbat urtez egon den Orozkon...

Zer jarduera mota izan dituzue ortuan eta zeintzuk izango dira etorkizunean?

Ortuarekin eskolari beste tresna bat ematea da xedea, gurasoek hasitako proiektua da, baina irakasleen esku ere uzten duguna.

Iaz hasi ginen eta oso harre-
ra ona izan zuen guztion partez. Aurten lan asko aurreratu dugu eta seguru esperientzia onak aterako direla.

Zeintzuk dira sustatu nahi dituzuen balioak?

Ingurugiroari errespetua, naturaren baliabideak era zentzudunean erabiltzea, elkarlana edo elikadura burujabetza, besteak beste.

Aiara

Joseba Terreros izendatu dute Arabako Kontzejuen elkarteko presidente



Arespalditzarra da Joseba Terreros. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Joseba Terreros da Arabako Kontzejuen Elkarteko presidenten berria. Arespalditzako Admi-

nistratio Batzarraren burua ere bada; gauzak hala, bi ardurak uz-tartu beharko ditu datozen lau urteetan.

Aiaraldea.eus atarian dago Terrerosi eginiko elkarrizketa.

elkarlan asesores

www.elkarlan.eu

Aseguru
bat
pertsona
bakoitzarentzat



Aholkularitza:
Lanekoa,
Fiskala,
Juridikoa eta
Kontabilitatekoa



Lamuza, 12 - LAUDIO
Tel. 94 672 74 28

Foru Kalea, 2 - AMURRIO
Tel. 945 39 33 51

Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65

HOTEL ORDUÑA PLAZA

Balneario

Zatoz gure instalazio eta zerbitzu
berriak ezagutzera



Ostatua
Jatetxea
Bainuetxea
Gimnasioa
Ekitaldien antolakuntza
Ezkontzak, koktelak,
menuak...

Foru plaza, Urduña 945 56 90 38 info@hotelordunaplaza.com

herriz herri

Laudio

Kooperatiba sortu dute hainbat ikaslek, Greziako errefuxiatuak laguntzera joateko

Testua

Txabi Alvarado Bañares

HesiHes kooperatiba sortu dute Laudio Ikastolako Batxiler-goko 1. mailako ikasleek. Bi hel-buru ditu egitasmoak. Alde bate-tik, “bestelako hezkuntza eredu bat posible dela” frogatu nahi dute. “Guretzat argi dago egungo gizartea ez doala ondo eta arazoetako bat da jasotzen dugun hezkuntza oinarrituta dagoela norbanakoetan eta lehiakortasuna sustatzen duela; kideak aurkari gisa ikustea, alegia”, adierazi dute. Horren aurrean, “laguntza eta elkarlana” sustatuko dituzte. “Enpatia falta ikaragarria dago eta gizartean bizi garen heinean, ingurukoak aintzat hartu behar ditugu”.

Bestetik, proiektu mardul bat dute esku artean: Grezian dauden errefuxiatuak laguntzera joatea. Horretarako Zaporeak elkarteko kideekin jarri dira harremanetan. “59 ikasle gara eta taldetan banatu gara beharren arabera”, azaldu



59 ikasle daude murgilduta projektuan. Aiaraldea.eus

dute. Hitzaldiak eta tailerrak ere antolatu dituzte, errefuxiatuei buruz gutxi zekitelako. Irakasleen eta ikastolaren laguntza izan dute, baina autonomoki jardun dira. “Guk erabaki dugu dena; nor lagundu, nola egin...”. Gatazkak egon diren arren, lanean “oso ondo” ari direla azpimarratu dute.

Finantziazioa bila

Ekin diote egitasmoa finantzatzeko ekintzak egiteari. Txosna eta erakusmahaiak jarriko

dituzte Laudio Ikastolan maiztaren 19an egongo den jaian. “Kamisetak, su-pizgailuak, jertseak, motxilak... egiten ari gara eta salduko ditugu, gure logorekin”, aurreratu dute. Laudio eta Amurrión jendarteratu nahi dute proiektua. Horretarako ospakizuna egingo dute apirilaren 20an Amurriónko Gaztetxean. “Argi dago 59 ikasleok ezingo dugula joan Greziara, baina batzen dugun dirua errefuxiatuentzat izango da”.

Gatillazo, Gozategi, Oreka TX eta Kepa Junkera San Rokeetan

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Abuztuko San Roke jaietarako lotu dituen musika taldeen berri eman du Laudioko Udalak. Tokiko erakundeak adierazi du ia kontzertu guztiak dituztela zehaztuta, eta gaineratu dute ahalik eta egitarau “anitzena” osatzen saiatu direla, “gustu eta ikusle motei dagokionez”.

Abuztuaren 15ean Alosquartet, Oreka TX eta Aukeran dantza taldea egongo dira Herriko Plazan. 16an Intxarkundia dantza taldearen jota eta arin-arin txapelketa egingo da eta Tio Teroren semeek eta Gozategik joko dute gero. 17an Puro Relajo, Radio Revolución eta Gatillazo taldeen txanda izango da. 22an, aldiz, Rondalia al Sejo taldeak eta herriko DJek girotuko dute eguna. 23an Trio Veracruz eta Quinta

reserva taldeek joko dute eta San Roke Musika Bandak eta Real Strailsen tributukoak, aldiz, 24an. Odoloste gauean Ladys band eta Strombers taldeek eskainiko dute kontzertua eta Kepa Junkerak biharamunean.

Casteller taldea

Iaz izan zuten arrakasta ikusirik, aurrean ere Kataluniako Casteller talde bat gonbidatzea erabaki du udalak, jaietako hainbat egunetan giroa berotu deza-

Erraldoiketa 16an

Abuztuaren 16an, aldiz, Erraldoiketa egingo da, Sorginlarren mitologia elkartearen eskutik. Euskal Herriko erraldoi mitologikoen topaketa izango da. Antolatzaileek aurreratu dutenez, ehunka lagun bertaratuko dira eguna ospatzera.

Kontsumoa %25 jaitsi nahi du udalak Energia Planaren bidez

Martxoko osoko bilkuran onartu zen Laudioko Udalen Energiako Ekintza Plana. Datozen sei urteetan zer jardura egin zehazten du dokumentuak, “energiaren kontsumoa eta berotegi eragina duten gasen isuria murriztea” helburu.

14 eraikin publikotan egingo dituzte obrak, energia kontsumoa %25 murrizteko: udaletxean, Arza biltegian, Aretako frontoian, udal hiltegian, Nerbioiko udal bulego zaharretan, Ellakuriko kiroldegian, udaletxe zaharrean, Gardeako kultura etxean, HHI ikastetxean, Areta Herri Ikastetxean, Lamuza Herri Ikastetxean, Gardeako kirolgunean, Granja kiroldegian eta Latorro Herri Ikastetxean. Kaleko argiztapenari dagokionez, 1.476 luminaria berritzea aurreikusten du planak. Modu horretan argite-ria publikoaren energia kontsumoa %33 txikitzea da udalaren asmoa.

Arakaldo

Zubiaren aurre-azterketak egitea eskatu diote Aldundiari

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onartu dute Arakaldoko zubiaren gaineko aurre-azterketak egitea eskatzea Aldundiari. EH Bilduk aurkeztu zuen proposamenabatzarretan, zubian “eraikuntza-proiektua” gauzatzeari begira. Alderdiak uste du zubiak “esku-hartze urgentea” behar duela, “segurtasunagatik eta beste hainbat faktorerengatik”.

Talde politikoak azaldu du Arakaldoko udalak “hainbat hila-bete” daramatzala Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanetan zubi berria eraikitze beharra azaleratzeko. “Egungo zubia oso estua da eta desegokia da oinezko zein ibilgailuentzako”. Horrez gain, “herriko sarbide bakarra” da eta ez du uholdeen aurkako araudia betetzen, koalizioaren hitzetan.

Aldundiaren proposamena

Bizkaiko Foru Aldundiak proposamena egin zuen Arakaldoko udalarekin bildu eta gero: zubian semaforo batzuk jartzea eta ibilgailu luzeen trafikoa mugatzea. Tokiko erakundeak udalbatzara eta herri batzarretara eraman zuen ideia hori eta bi toki horietan ebatzi zen proposamenak ez zuela arazoa konpontzen. Idazkia plazaratu zuen orduan udalak, jakinarazteko Aldundiari soluzio bakarra “zubi berria eraikitzea” dela.

Bizkaiko Foru Aldundiak ez zion erantzun idazki horri. Horregatik erabaki zuen udal-gobernuak Bizkaiko Batzar Nagusietako EH Bilduko batzarkideekin biltzea, “korapiloa askatzeko”. “EH Bilduko batzarkideak Arakaldoko zubi berriaren eraikuntza proiektua 2018an egiteko konpromisoa negoziatzen ari-ru dira Bizkaiko Foru Aldundiko arduradun politikoekin”.



Kamioi eta autobus ugari igarotzen dira zubitik. EH bildu

Arrankudiaga-Zollo

Gizarte Etxea erabili ahalko dute herritarrek bazkide txartelarekin

Testua

Txabi Alvarado Bañares

“Gizartekide txartela” sortu du Gizarte Etxeak, Arrankudiaga-Zolloko bizilagunak bazkide egin daitezten, 3 euroren truke. Hainbat abantaila eskainiko ditu. Aukera emango du espazioa erreserbatzeko: “ikastaroak egiteko, ideiak azaldu edo plazaratzeko,

bilerak antolatzeko edo bazkari, afari eta askariak prestatzeko”. Horrez gain, Gizarte Etxean egiten diren jardueri buruzko informazioa jasoko dute bazkideek. “Auzokideekiko konfiantza” oinarrituko da funtzionamendu berria, “instalazioak ondo erabiltzeko eta aurkitutako moduan edo hobeto uzteko konpromisoan”.



errenta

ARABA

17

Pertsona fisikoen
errentaren eta ondarearen
gaineko zergak



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

*Araba da erronka
El reto es Álava*

herriz herri

Amurrio

430.000 euro bideratuko dituzte AmurriokoEkin aurrekontu parte hartzaileetara

Testua

Txabi Alvarado Bañares

AmurriokoEkin egitasmoaren bigarren edizioa abiatu du Amurrioko Udalak. 430.000 euro bideratuko dituzte aurrekontu parte-hartzaileak sustatzea helburu duen egitasmo horretara. Prozesu parte-hartzailea abiatuko du tokiko erakundeak, auzokideek erabaki dezaten zertan inbertitu diru-kopuru hori. Aurrekontuaren erdia -215.000 euro- 2019an erabili beharko da eta 2020. urtean, aldiz, beste erdia.

Atzo -apirilak 10- ireki zen herritarren inbertsio-proposamenak jasotzeko epea. Auzokide bakoitzak nahibeste ideia aurkeztu ditzake, ondorengo baldintzak beteta betiere: Amurrioren errol-datua egotea eta 16 urte izatea gutxienez. Helarazten diren proposamenak inbertsioak izan behar dira eta udalaren eskumenen barruan egon behar dira. Hori dela eta, prozesutik kanpo geratuko dira Batzar Administrazio-boetan gauzatzeko inbertsioak.

Ideiak helarazteko hainbat modu daude: Postontziak -Udal-etxean, Kiroldegian eta Kultura



Bozketa herrikoiekin amaituko da prozesua. Amurrioko Udala

Etxean-, Internet bidez -www.amurriokoekin.eus- edo posta elektronikobidez -partehartzea@amurrio.eus-. Horrez gain, karpak jarriko dituzte zenbait auzotan eta San Anton plazan merkatu egunbatzuetan, auzokideen ideiak zuzenean jasotzeko.

Bi inbertsio mota

Udalak bitan banatuko ditu inbertsio-proposamenak: 5.000 euro baino gutxiagoko kostua dutenak alde batetik eta diru gehiago eskatzen dutenak bestetik. Urte bakoitzean baliatuko diren 215.000 euroetatik 200.000

baliatuko dira 5.000 euro baino gehiagoko inbertsioak gauzatzera eta 15.000, aldiz, txikiagoetara.

Lau fase

Udaletik jakinarazi dute prozesuak lau fase izango dituela. Ideiak aurkezteko epea amaituta ekingo diote bigarren pausoari: jasotako proposamenen bideragarritasuna aztertzea. Lehentasunen arabera sailkatuko dituzte gero, eta bozketa herrikoia egingo dute amaitzeko.

Auzokidez osatutako talde-motor bat sortu dute prozesu osoaren jarraipena egiteko.

Urduña

Gazte Asanblada izango da Otxomaioetako pregoilaria eta Aintzane Okeranza txupinera

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Aurtengo Otxomaioetako pregoia nork irakurriko duen eta lehen suziria nork piztuko duen iragarri berri du Urduñako Udalak. Hiriko Gazte Asanblada izango da pregoilaria. Urte egokia da asanbladari aitortza egiteko, 20 urte betetzen baititu. “Urte hauek gazteei zein herritarrei bideratutako hainbat kultura eta aisialdi ekintza antolatu ditu, zeinen artean nabarmentzen diren Gazte Eguna edota udako solstizioan egiten duten Akelarre jendetsua”, azaldu du udalak.

Jaien hasiera suziria pizteaz, aldiz, Aintzane Okeranza arduratuko da. Tokiko Erakundeak azaldu du Okeranzak hiriko hainbat ekintzatan parte hartu duela eta oso maitatua dela hirian, “lorategi publikoen zaintzan aspalditik egiten duen lan boluntarioagatik, batez ere”.

Iaz ekin zion udalak pregoilari eta txupinerak herri-bozketa bidez aukeratzeari. 130 herritar baino gehiagok hartu dute parte bozketan, balizko hautagaien izenak sartuta udalaren webeko



Kartel lehiaketaren irabazlea. I.H.

galdetegian edota Alondegian jarritako kutxan.

Jaietako kartela

Jaietako kartel lehiaketaren irabazlea zein den ebatzi dute baita ere. Iñigo Hurtado Beobide urduñarrak eskuratu du saria “Danak piloira!” margolanari esker. Kimuak kategorian Arrate Montejok lortu du lehen saria eta Itsaso Alavak bigarrena. Hurren kategorian, aldiz, Eider Montejo Berrio eta Eneko Alava geratu dira lehen eta bigarren postuan, hurrenez hurren.

Tubos Reunidos enpresa zigortu dute amiantoari lotutako langile baten heriotzaren ondorioz

Testua

Aitor Aspuru Saez

Tubos Reunidos SA eta Tubos Reunidos Industriales SLU enpresak 65.017,6 euro ordaindu beharko dizkiete Jose Ignacio G. A.-ren senideei. Langilea 2012an hil zen 58 urterekin biriketako minbiziak jota. Gasteizko lan-arloko 3. epaitegiak Tubos Reunidosi leporatu dio gaitz horren ardura, amiantoarekin harreman zuzena izan baitzuen beharginak lantegian.

ASVIAMIE elkarteak zabaldu du epaia eta salatu du langileak galdetegian betetzen zituela bere eginkizunak inolako segurtasun eta higiene neurririk gabe, Lan Ikuskaritzak berretsi zuen moduan.

Jose Ignacio G. A. egoera horretan egon zen 1976tik 1983ra bitartean. 2007an lanerako ezintasun iraunkor arrunta eman zioten beharginari, nahiz eta amianto topatu zuten bere pleuran. 2011n biriketako adenokartzinoma diagnostikatu zioten eta, horregatik, lanerako erabateko ezintasuna kudeatzen hasi zen. Hurrengo urtean hil zen.

Kalte ordainaren erdia

Gizarte Segurantzak aitortu zion lan gaixotasuna eta baita alargun pentsioa ere bere emazteari, baina Tubos Reunidos enpresak helegitea jarri zion erabakiari. Hala eta guztiz ere, Epaitegi Gorenak, hainbat epaitegiren artean,

berretsi zuen zigorra. Edonola ere, ASVIAMIEk epaiaren oso balorazio kritikoa egin du. Izan ere, elkarteak azaldu du enpresak hainbat aitzakia jarri duela dagokion kalte ordainari aurre ez egiteko. Argudio horien artean zegoen langilea erretzailea zela.

Berez, senideek 143.038,81 euroko zigorra eskatu zuten enpresarentzat, eta epaileak erdira murriztu du, aintzat hartuta beharginak erretzeko ohitura zuela. ASVIAMIE-ren aburuz, arrazoi horiek aintzat hartzea adar jotze hutsa da, enpresak ez baitzuen inolako segurtasun neurririk hartu urte luzez. Zentzu horretan, nolabait, epaileak langilea ere bere gaixotasunaren arduradun egin duela uste du elkarteak.

Datozen asteetan aldatuko dira tokiz zikoinen habiak

Bizkaiko Foru Aldundiko eta Apezpikutzako teknikariek bildu da Urduñako Udala. Antzina Andra Mari Ikastetxeko kanpandorreko zikoinen habien egoeraz mintzatu dira, habietako bat lurrera erori baitzen iragan astean.

Bilera baliatu dute habien egoera aztertzeko eta, ondorioztatu zuten, bik dute erortzeko arriskua, “eraikinetik kanpo ateratzen ari direlako”. Hori dela eta, premiazko txostena prestatuko dute Aldundiak eta Apezpikutzak “hurrengo asteetan” leku aldaketa egitea helburu. Udalak ziurtatu du “uneoro” bermatuko dela “zikoinen zein jaiotzear dauden txiten ongizatea”.

Autokarabana parking bat atondu nahi du udalak aurtengo

Urduñako Udalak jakinarazi du hirian autokarabanaen aparkalekua jartzeko aukera aztertzen ari dela. Diru kopurua erreserbatu du aurtengo aurrekontuetan horretarako, 15.000 eurokoa. Proiektua enkargatu dute dagoneko, eta bideragarritasuna aztertuko dute jarraian. “Eragin positiboa izango lukeela aurreikusidugu, turismoari, merkataritzari zein ostalaritzari begira”. 1200 metro karratu okupatuko lituzke espazioak eta Burgosera doan errepideko partzela batean egongo litzateke, zezen-plazaren alboan. 12-13 autokarabanentzako espazioa atontzea da tokiko erakundearen asmoa, etorkizunean beste 5 plaza jartzeko aukera zabalik utzita.

Udaberria, norberaren estetika propioa erein eta loratzeko unea

Udaberrian gaude dagoeneko. Eguraldia nahiko irregularra den arren, azken asteetan nabarmen egin du gora tenperaturak, egun batzuetan udan gaudela iruditzen. Jende askok baliatzen du urtaro berri honen hasiera norbere estetikan aldaketak egiteko. Ile mozketak berriak probatu, kirola egin, itxura orokorra aldatu... modu askotan moldatu edo berri-tu daiteke norberaren estetika. Apirilean, adibidez, igoera handia -%25 ingurukoa- ematen da gorputzerako tratamendu mediku-estetikoen eskaera kopuruan.

Pertsona asko "bat-bateko eragina duten tratamenduen bila" hasten dira. Hala azaldu du Espainiako Medikuntza Estetikoko Elkarteko kidea den Concepcion Obregonek, baina gaineratu du estetika on bat "ohitura on eta sano batzuen" ondorioa dela. "Medizina estetikoak asko egin dezake zahartzarora optimizatze-

ko, adibidez. Baina beharrezkoa da pazientearen inplikazio aktibo eta jarraitua".

Gorputzerako tratamenduek ez dute soilik estetika moldatzeko balio, osasun fisiko eta psikikoa hobetzeko ere balio dezakete. Masa-jeak, aurpegirako tratamenduak... erremedio onak izan daitezke urteko bigarren hiruhilekoari indarrez heltzeko.

Ile-mozketetarako aholkuak

Ileari dagokionez, adituek hainbat aholku ematen dituzte mozketak berriak probatu nahi dituztenentzat. Alde batetik, funtsezkoa da epe ertain batean zure burua mozketak horrekin gustura ikusiko duzula pentsatzea. Komenigarria izan daiteke baita ere mantentzeko erraza den ile-mozketak bat hautatzea, aditu batengana jo gabe bere horretan mantendu daitekeena, alegia.

Horrez gain, kontuan hartu beti



Udaberria une egokia izan daiteke ile-mozketak berri bat probatzeko. Mainstream -Flickr-

ez dela ideia ona unean uneko moda eta tendentziei jarraitzea. Zergatik? Ba, alde batetik, modak ilea berriz hazi baino lehen alda-

tu daitezkeelako eta, bestetik, ez delako oso originala jende guztiak daraman orrazkera bera eramatea. Baina, dudarik izatekotan, erra-

za da soluzioa: kalera irten eta zure hurbileko ile-apaintzaile edo estetika zentrorra joan eta bertan galdetzea.

SURYA

Masaje terapeutikoak
Masaje lasaigarriak
Aurpegi-tratamenduak
Gorputz-tratamenduak
Estetika-tratamenduak
Etkez etxeko makillajea

Zumalakarregi 28, LAUDIO · 944 030 362 · 688 887 950
www.suryallodio.es @SuryaLlodio

PELUKAS

Ile-apaindegia

Ile mozketak
Bizargintza

Pasa zaitez hitzordurik eskatu gabe

Astelehenebik ostiralera:
9:30-13:30 16:00-20:00
Larunbatetan: 9:00-13:00

Maestro Elorza kalea 1, LAUDIO

larmintz estetika

Solariuma
Depilazioa
(laser eta argizariarekin)
Makillajea
Manikura eta pedikura
Aurpegi-tratamenduak

Zumalakarregi 30, Audio 94 672 42 65 · 679 387 787

KOLOORE ESTETIKA

Zure gorputza errespetatzen dugu, tratamendu ez-inbaditzaileak eta kosmetiko ekologikoak erabiltzen

Gorputz- eta aurpegi-tratamenduak
SPA erritualak
Diatermia
Diodo laserra
eta askoz gehiago!

Tel. 605 74 72 29 · Izaskun Udaeta
Larrinaga kalea 4, 5 behe - AMURRIO

TXUKUN estilistak

Estetika
Ekitaldietarako makillajea
Ezkongaienezako makillajea
Gorputz eta aurpegirako tratamendu pertsonalizatuak
Presoterapia
Egur-terapia
Masaje linfatikoak
Solariuma

945 38 44 20
txukunestilistak@gmail.com
Gernika Plaza, 2 48460 Urduña

Txukun Estilistak

Profesional
onenak
zure
zerbitzura!

herriz herri

Saratxo

Proiektu tekniko alternatiboa aurkeztu du Saratxo Bizirik



Administrazio Batzarraren egoitzan aurkeztu zuten proiektua. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Saratxo Bizirik plataformako kideek prentsaurrekoa eskaini dute jakinarazteko proiektu tekniko alternatiboak prestatu dituztela Isvial enpresarekin.

Ingeniariek 3 balizko egitasmo landu dituzte glorieta bakar ardatz hartuta eta bide zerbitzu gutxiago eraikita, Los Mesones auzunean trafikoa bideratzeko. Plataformako kideek ziurtatu dute eurek ere uste dutela bertan esku hartzea beharrezkoa dela, baina hasierako lurralde-okupazio maila murriztuta.

Zentzu horretan, euren proposamenek lursail askoz gutxiago hartuko lukete. Arabako Foru Aldundiaren egungo ideia da bertan 78.651 metro karratu okupatzea. Saratxo Biziriken asmoa da, ordea, gehienez 26.951 metro karratu erabiltzea. Guztira, hiru aukera osatu dituzte eta xumee-nak 22.093 metro karratu baliatuko lituzke.

Plataformako bozeramaileek azaldu dute proiektua ez litzate-

keela atzeratuko ekarpen horiekin. Izan ere, konponbide merkeagoa da, eta proiektu osoari ez dio eragiten; soilik hegoaldeko loturari.

Euren ustez, zentzu gehiago dauka gastua murrizteak, eta diru hori bideratzea industriaguneko sarreraren segurtasuna hobetzera: "bertan gertatu dira istripu larrienak".

Jarrera eraikitzailea

Saratxo Bizirik adierazi du erakundeek beti izan dutela eze-ko erantzuna aldaketa teknikoen proposamenei dagokienez, argudiatuta ezin zela arauen ondorioz. Hori dela eta, Isvial enpresari eskatu diote legezkoa den proiektua gauzatzea.

Horretarako Orain Arabaren laguntza izan dute, talde horrek ordaindu baitu txostena. Saratxo Bizirikeko kideek uste dute erakutsi dutela erakundeek gehiago egin dezaketela legea urratu gabe. Horrez gain, ingeniariaren lana ikusita, plataforma osatzen dutenen aburuz, proiektua beste modu batean egiteko aukera zegoen, etxeak eraitsi gabe.

Artziniega

Mateo Lafragua da Ponle freno 2017 saria eskuratzeko hautagaia

Testua
Aitor Aspuru Saez

Mateo Lafragua artziniegarrari jakinarazi diote *La repercusión de los Resaltos en las Emergencias Sanitarias* izeneko lanagatik *Ciudadano Ponle Freno* saria irabazi dezakeela. Bera ez ezik, Anna Gonzalez bide segurtasun ekintzaileak eta Francisco Javier Morales Herrera Guardia Zibilak eskuratu dezakete aitortpena.

Bihar-apirilak 12- izango da sari banaketa 19:00etan Espainiako Senatuaren Jauregian eta Matías Pratsek egingo ditu aurkezpen lanak. Egun horretan itxiko dute boza emateko epea, eguerdian, alegia. Atresmediaren web-gunean dago botoa emateko aukera.

Atresmedia enpresa da, hain zuzen, ekimenaren sortzailea eta, ondorioz, sari banaketaren jarraipen zabala egingo dute Antena 3 telebistan.

Urteetako borroka

Mateo Lafraguak urteak daramatza borrokan Artziniega eta Bilbo artean dauden konkorrak kentzeko, oztopo horiek anbulantzie-tan duten eragina dela eta. Eusko Jaurlaritzak diru-partida bat sartu du aurtengo aurrekontuetan artziniegarraren eskaria betetzeko. Hala ere, Lafraguak adierazi du borrokan jarraituko duela, "estatu osoko egoera" aldatzea baita bere helburua.



**MAKINEN ALOKAIRUA
ETA SALMENTA**

**ERAIKUNTZA,
LOREZAINNTZA ETA
GARBIKETA**

ARZA II industrialdea · LAUDIO
946 43 00 42
enkarki@enkarki.net
www.enkarki.net

PLATAFORMAK

Askotariko plataforma jasotzaileak alokatzen ditugu. Artikulatuak, toleskorak, teleskopikoak, pertsona bakarrek, kamioien gainekoak, beldardunak...



ERAIKUNTZA

Hondeamakina txikiak, etxolak, dumper-ak, hesiak... Garraio zerbitzu propioa eskaintzen dugu Bizkaian eta Araban.

GARBIKETA

Erraztatzeko makinak, zorua garbitzekoak, xurgagailuak, hidrogarbigailuak. NILFISK garbiketa marka liderraren banatzaile ofizialak gara.

ZATOZ GURE ERAKUSKETARA

Industriarako hornikuntza

Ezagutu makina txikien eskaintza



USHUAIA

Dionisio Aldama, 20
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO
Tel. 945 89 08 41

Asteartetik ostiralera: 9:30/19:00 (EGUERDIAN ERE ZABALIK) Larunbatetan: 9:00/14:00

ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · LURRINDEGIA · OSAGARRIAK

ORRAZKERA BEREZI ETA DOTOREAK



·Estentsioak eta ileordeak
·Ezkonberri, amabitxi eta gonbidatuentzako
osagarri eta apaingarriak
(loreak, brotzeak, kristalezko urkilak, lumak eta
ilerako bitxiak)

HITZORDUA HARTZEKO: 945 89 08 41

Behin-betiko depilazioa · Sauna · Solariuma

Ushuaia Peluqueria & Estética/Perfumaria

babestutako edukia

Errentako kanpaina apirilaren 9an hasiko da *Rentafácil* modalitatean, eta Laudioko bulegoa apirilaren 11n irekiko da Rentaraba jendearentzat. Kanpainaren iraupena

luzatu egin da, eta Ogasuneko bulegoetan arreta emateko postuak gehitu. Gainera, eutsi egin zaio aurretiaz egindako aitorpenak telefono mugikorrak onartzeko aukerari.

Ogasunak aitorpena bidaliko die Arabako 113.000 familia baino gehiagori

“Nahi dugu errentako kanpaina hau bizkorrago eta eraginkorrago izatea, eta ahalegin handia egin dugu Arabako zergadunei tramiteak errazteko”. Hala esan du José Luis Cimiano Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak 2017ko ekitaldiko errenta kanpaina aurkeztean.

Zergadunak Arabako Foru Ogasunarekin egunean jarriko diren kanpaina honek zenbait berrietasun dakartza, horiek guztiak eraginkortasun eta azkartasun handiagoa lortzeko asmoz. Esaterako, luzatu egin da kanpainaren iraunaldia, eta jendeari arreta eskaintzeko egun gehiago izango dira. Gainera, 4 postu gehiago ipini dira Gasteizko Samaniego kaleko bulegoetan, iazko kanpainarako gehitutako 3 postuei eransten zaizkienak. Denetara, 70 pertsona egongo dira arabarren aitorpenak kudeatzen -Aldundiko 22 langile eta 48 langile gehigarri- Arabako hiriburuko, Laudioko eta Guardako bulegoetan.

Telefono mugikor bidez

Baita ere, handitzen segitzen du *Rentafácil*ekin egindako aitorpenen kopuruak, hau da, Arabako Foru Ogasunak zergadunei eginda bidaltzen dizkien aitorpenak, beraiek onar ditzaten edo alda ditzaten. Kanpaina honetan, guztira, Ogasunak 113.045 aitorpen bidaliko ditu, ordenagailuaz edo telefono mugikorrak onartu ahal izango direnak. “Iaz 4.656 zergadunek erabili zuten telefono mugikorra beren aitorpenak onartzeko, eta espero dugu aurtentresna horren erabiltzaileen kopurua handitzea, kudeaketa bizkortu eta erraztu egiten baitu”, adierazi du Cimianok.

Laguntza programa berria

Beste berrietasun garrantzitsu bat *Rentared* eta *Autorrenta* modalitateetan izango da, Arabako Foru Ogasunak kanpaina



Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saialaren diputatua, José Luis Cimiano; eta Ogasun Zuzendaritza, Teresa Viguri. Arabako Foru Aldundia

honetan abian ipini duen laguntza programa berria dela medio. “Programa berria erabilerrazagoa, azkarragoa eta intuitiboagoa da”, aurreratu du foru diputatuak. Zergadun batzuek beren aitorpena egiteko erabiltzen duten programa informatikoa da; ondoren, Ogasunera bidaltzen dute, interneten bidez nahiz finantza entitate laguntzaileen bitartez, edo bulegoetan bertan aurkeztu. Ia 9.660 pertsona baliatu ziren aukera honetaz iazko kanpainan.

Rent@raba

Rent@raba modalitatearako epea -hau da, beren errenta aitorpena ogasun bulegoetan edo finantza entitate, aholkulari bulego edo kudeatze agentzia laguntzaileetan egiten duten zergadunentzat- datorren apirilaren 11n hasi eta ekainaren 20an bukatuko da Aldundiaren bulegoetara datozenentzat; finantza entitate edo agentzientzat, berriz, pixka bat geroago hasiko

Kanpaina honetan, Arabak laguntza programa berria estreinatuko du

da, apirilaren 20an. Ogasunak Gasteizen duen egoitzara eta Laudio eta Guardian dituen bulegoetara zergadun guztiak etorri ahal izango dira, salbu eta ekonomia jardueretan dihardutenak, 2017an beren ohiko etxebizitza saldu dutenak eta ekitaldian zehar balore higigarrien edo higiezinaren hiru salmenta eragiketa baino gehiago egin dituztenak.

Horrela egiteko, hitzordua eskatu beharko dute apirilaren 9tik aurrera, Interneten bidez,

www.araba.eus helbidean; telefonoz -901 50 40 30-; edo informazio puntuetan bertan: Gasteizen -Samaniego kalean-, Kanpezun, Murgian, Oionen eta Agurainen.

Murrizketak eta kenkariak

Ekitaldi honetan bere hartan iraungo dute PFEZaren kenkariak eta murrizketak. Horien artean, hauek nabarmendu behar dira: ondorengo kenkaria -585 euro lehenengo seme-alabarengatik, 724 euro bigarrenengatik eta 1.233 hirugarrenengatik- eta adinaren, ezintasunaren edo mendetasunaren kenkariak, graduaren arabera. Azpimarratu daitezke, baita ere, BGA Eetako murrizketak, baterako zerga ordainketa-ko kenkariak eta ohiko etxebizitzaren alokairu nahiz erosketako kenkariak.

Ordainketa eta sarrerak egiteko epeei dagokienez, Ogasunak gehienez 48 orduko epean itzultzen die zergadunei; hortaz, beren aitorpena onartzen duten lehe-

nengo zergadunek datorren apirilaren 11tik aurrera kobratu ahal izango dute. Aitorpen positiboak (ordaintzekoei) dagokienez, banku helbideratze bidez kobratuko dira ekainaren 25ean.

Hala ere, eutsi egiten zaio ordainketa zatitzeko aukerari, interesik gabe eta bi epetan -ekainaren 25ean eta azaroaren 12an.

Ondarearen gaineko zerga

PFEZko kanpainarekin batera, Arabako Foru Ogasunak ondarearen gaineko zergako kanpainari ere helduko dio, aurtentresna apirilaren 20tik hasita. 2017ko ekitaldirako, aurreikusten da 1.575 arabarrek aitortu behar izatea zerga hau, ondasun eta eskubidetan 2 milioi euro baino gehiago edo 800.000 euro baino gehiagoko ondare garbia daukatelako.

Ogasunaren aurreikuspenen arabera, ondarearen zerga dela-eta 16,5 milioi euro eskuratuko dira, hots, 10.476 euro zergaduneko, batez beste.

elkarritzeta

“Beldurragatik egin genuen Siriatik ihes. Bonbak lehertu zigun etxea”

ABDUL AZIM (Siria, 1980) SIRIAKO ERREFUXIATUA DA. GERRAK LEHERTU ZION ETXEA. ALABA-SEMEEN ETORKIZUNA HOBEA IZATEKO ERABAKI ZUEN LIBANOTIK IHES EGITEA FAMILIAREKIN. LAUDION ARI DIRA BIZITZEN ORAINGOZ.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Noiz iritsi zineten Aiaraldera?

Duela 6 hilabete. Hona etorri ginetik arazoak ditugu Gurutze Gorriarekin. Gure seme-alabek ez dute nahikoa arropa. 4 haur ditugu; 5, 6, 11 eta 12 urtekoak. Jendearekin komunikatzeko itzultzaile bat jarri ziguten, baina Gurutze Gorriak kendu egin digu, soldata bat gehiago ez ordaintzeko. Hizkuntzak zeharo baldintzatzen du egunerokoa. Gure haurrak eskola publikora doaz, gaztelera eta euskara ikasten ari dira. Gu, berriz, Helduen Zentroa joaten gara gaztelera ikastera egunero, eta Gurutze Gorriara. Telefono mugikorretako itzultzaileei esker hitz egiten dugu ingurukoekin. Orain, hemengo hizkuntzak ikasten ari gara, lan egin ahal izateko.

Nolako zen zuen bizitza Sirian?

Gu Damaskokoak gara, Siriako hiriburukoak. Bonba batek gure etxea suntsitu zuelako atera behar izan ginen Libanora. Bost urte eman genituen han bizitzen. Bizi baldintzak hobetzeko etorri ginen, gure haurren etorkizunak kezkatzen gintuelako. Lanbidez jostuna eta bizar apaintzailea gara, nahiz eta margolari lanetan eta haurrak

zaintzen ere aritu. Libanon bost urtez bizi izan ginen. Gerra aurretik oso ondo zegoen dena. Amaitzeko desiratzen gaude, baina ez dakigu zein den soluzioa. Gure 5 ahizpa-nebak han geratu dira, guk baino ez dugu egin ihes gerratik.

Gertutik ukitu zaituzte gerrak.

Han egunero ikusten genituen hegazkinak, bonbak... Beldurragatik egin genuen Siriatik ihes. Familia bakoitzak 4-5 haur ditu gutxi gorabehera. Oso gogorra da euren-gandik urrun egotea. Telefonoz hitz egiten dugu eurekin, baina gerra egoeragatik ezin izaten dugu beti komunkatu.

Siriatik ihes egitea erabaki zenuten.

Socorro erakundeari esker iritsi ginen hona. Lau orduko hegaldia izan zen. Behin Madrilera iritsita sei orduko autobus bidaia izan genuen honaino. Guk ez genuen Audio hautatu, beraiek kokatzen zaituzte toki batean edo bestean. Eusko Jaurlaritzako Auzolana programaren baitan gaude hemen. Audioko Udalak eta Ongizate Sailak asko lagundu gaituzte.

Errefuxiatu gisa, nolako izan zen bidaia?

“Hona etorri ginenetik arazoak ditugu Gurutze Gorriarekin”

“Bizilagunek asko lagundu gaituzte”

elkarrizketa



Madriletak Laudiorako bidean gaizki tratatu gintuz-tela gogoratzen dut: bi familia errefuxiatuak errepide bazterrean utzi gintuzten bazkaltzen, eta gaizki sentitu ginen. Hona iritsita hobeto gaude, baina hau ez da guk nahi genuen bizitza mota, ez da espero genuena. Guk pozik bizi nahi dugu; hemen, baina zoriontsuago.

Eskaintzen dizkizueten laguntzak nolakoak dira?

Faseka antolatzen dira laguntzak. Lehen sei hilabeteetan 220 euro ematen dizkizute elikagaiak eta garbiketarako produktuak eskuratzeko, kupoi bidez. Zerrenda bat ematen digute produktuak aukeratzeko. Orain, 160 euro jasotzen ditugu, nahiz eta 180€ zegozkigula esan zigun Gurutze Gorriak. Ematen diguten laguntza ez da nahikoa bizirauteko. Hau ez da espero genuen bizitza zoriontsua. Oso gaizki ari da portatzen Gurutze Gorria gurekin. Ia bi hilabete igaro ditugu txartela kargatzeko zain, eta arropa ez digute erraztu.

Bestalde, Audioko Udalak pisua utzi digu sei hilabetez, ura eta elektrizitate gastuak barne hartuta. Orain, 3 hilabete gehiago luzatu digute aukera, baina ez badugu etxebizitzarik topatzen Laudiotik alde egin beharko dugu.

Zein oztoporekin egin duzue topo?

“Gu oso gustura gaude Laudion, hemen geratu nahiko genuke”

“Gure haurrek gerra gabe bizitzea nahi dugu”

Ez dugunez hizkuntza menperatzen, zaila da lana lortzea. Bestalde, gure alabari ez diote eskolan zapia jantzita joaten utzi.

Eskualdean zenbat errefuxiatu siriar zaudete?

Amurrión bi familia gehiago daude, uste dugu. Hala ere, ez dugu elkarren berri askorik. Madrilén jende asko dago, arazo asko daude. Errefuxiatu askok Alemaniara alde egiten dute hemen ez dagoelako zer eginik. Gu oso gustura gaude Laudion, hemen geratu nahiko genuke, baina etxea bilatu behar dugu horretarako. Oso zaila da, gure baldintzei erreparatuz gero.

Laudion, gureaz gain, beste familia bat dago: 5 hila-beteko haur bat eta 3 urteko neskatila bat dituzte.

“Ematen diguten laguntza ez da nahikoa bizirauteko”

“Laudion beste siriar familia bat dago eta beste bi Amurrión”

Guraso zareten heinean, zelan bizi duzue erbestea?

Oso gogorra da, oso zaila. Gure alaba-semeek bada-kite zer den Sirian gertatzen dena, euren begiekin ikusi dute gerra; 5-6 urtekoek ez.

Oso gertutik entzun dituzue bonba hotsak, etxea eta burua lehertzeraino ia.

4 urterekin buruaren ondoan egin zidan eztanda bonbak, aurpegian marka daukat. Egunero sekulako burukominak izaten ditut, medikamentu asko hartu behar ditut ondo egoteko, zortzi bat pastilla ezberdin. Medikuek proba asko egin dizkidate, baina ez dakite zer dudana. Mareatu nintzela gogoratzen dut, ez nintzela ondo sentitzen. Nire lagunek etxe batera eraman ninduten, laguntza eske.

Herritarren aldetik jaso al duzue babesik?

Bai, bizilagunek asko lagundu gaituzte, oso jatorrak dira. Gure arropa eta oinetakoen egoera ikusita, beraie-nak eman zizkiguten. Gurutze Gorriari arropa eskatu genion, baina ez ziguten eman. Hemengo jendeak ondo tratatzen gaitu, gurekin hitz egiten dute... Horrekin aski zaigu. Guk ez dugu eskean ibili nahi. Familia arruntek bezala, gure arropa eta abar aukeratu nahi dugu.

Zein mezu zabaldu nahiko zenioke jendeari?

Ez dugu ezer eskatu nahi, gure haurrek etorkizun hobe izatea bakarrik. Gerra gabe bizitzea nahi dugu, bizitzaz gozatzeko aukera izan dezatela.



agenda

2018/04/11
2018/04/24



Hiru urteren ostean, bueltan da Puntazo Eguna

Puntazo Eguna berreskuratu dute Amurrioko jai-koadrilek. 2015ean ospatu zen jai horren azken edizioa, eta aurtten gutziz indarberriturik itzuliko da ekimena.

“Amurrion ahalik eta jende gehien erakartzea izango dugu helburu”, jakinarazi dute antolatzaileek. Hori dela eta, egingo dituzten ekintzak “ezberdinak” eta “jendearen parte hartzea sustatze-

ko” pentsatutakoak izango dira. Beste helburu bat ere badute eguren bultzatzaileek: Amurrioko jai koadrilen kopurua handitzea, “poliki-poliki” bada ere. Zentzu horretan, nabarmendu dute belau-naldi berriak “gogotsu eta indar berriekin” datozela.

Egun osoko egitaraua

Egun osoko egitaraua prestatu dute apirilaren 14rako. Xedenag-

sia “ondo pasatzea” izango da, nabarmendu dutenez: “koadrila bakoitzaren koloreak herritik ikusi nahi ditugu, jendeak disfrutatzea nahi dugu”.

Aurtengoa edizio arrakastatsua izatea espero dute. Izan ere, egunak ospea lortzen badu erronka berri bati heldzea dute buruan: Amurrioko Jaietako Koadrilen Egunerako egitarau “potentea-go” osatzea.

Erabakitzeako eskubidea Oletako zelaietan aldarri

Geroz eta hurbilago dago maiatzaren 6an Gure Esku Dagok Laudion, Okondon, Artziniegan, Amurriion, Arakaldon eta Aiaran egingo duen herri-galdeketa. Ekimen hori babeste aldera zita garrantzitsua prestatu du Aiaraldea Bat elkarteak datorren apirilaren 22rako. Ibilal-

Urtebeteko egitaraua atondudute Artziniegako Mendieta Kulturako kideek. Apirilaren 14an hasiko da, Ama Agustindarren Komentuan Musika emanaldia eskainiko dute Almuñena Cañete eta Eva Ponsel. Ekainean, uztailean, irailean eta abenduan izango dira hurrengo zitak.

Feminismoa Aiaraldean

jardunaldia
larunbatean



“Feminismoa Aiaraldean” jardunaldia antolatuko du Aiaraldea Ekintzen Faktoria datorren larunbatean; hots, apirilaren 14an, Lau dioko Kultura Etxean. 10:30ean hasiko da saioa, “Feminismoa Aiaraldean” gogoe-ta kolektiboarekin. “Azterketa bat egin dugu. Datuetatik diognostikoa egitea izango da lehen pausoa, ondoren aurrera begirako helburuak eta erronkak zehatzuk izan behar diren zehazteko”, adierazi dute. 11:45ean izango da hori, “Etorkizuna marrazten, hitzetatik ekintzetara” izenburudun solasaldian. Ondoren, 13:00etan, Aiaraldeko topaketa feministak aurkeztuko dituzte.

MUSIKA

04.13 Ostirala
22:00 ARRANKUDIAGA
DISASTER NOW + ASTARTE
Txondor Gaztetxea

04.13 Ostirala
22:30 AMURRIO
KOMETA + ATLANTIDA
Sarrera: 6 euro
-4 euro bazkideak-
Burubio Kultur Elkartea

04.14 Larumbata
20:30 ARTZINIEGA
“LA HISTORIA DE ALCYONE”
Ama Agustindarren komentua

HITZALDIAK

04.13 Ostirala
19:00 AUDIO
TOKIAN-TOKIKO BIZITZAN LAUDIOKO HERRITAR BERRIEN ESKU-HARTZE ETA SARTZEA
Erabilera anitzeko udal aretoa

04.13 Ostirala
19:30 AUDIO
“EL PRIMER DIA D'OCTUBRE”
“La Directa” aldizkariaren dokumentalaren emanaldia eta CDRkoekin solasaldia
Donibane aretoa

04.14 Larumbata
18:30 AUDIO
EUSKAL HERRITAR JANZKERA 1789-1936
Amala Mujikaren eskutik
Musika Etxea

04.13 Ostirala
18:30 AUDIO
KOMUNISMOAREN ERAIKUNTZA KRISI KAPITALISTAN
Gaztetxea

04.17 Asteartea
17:00 ARTZINIEGA
PENTSIOEI BURUZKO HITZALDIA
Udaletxe zaharrean

KIROLA

04.23

BESTEAK

04.13 Ostirala
20:00 AUDIO
DANTZA-PLAZA
Herriko plaza

04.14 Larumbata
14:00 AUDIO
1938KO KINTOAK
Txango gastrotaberna

04.15 Igandea
10:00 AUDIO
“LAUDIOK ERABAKI” KULTURA EGUNA
Xake partidak
Umeentzako tailerrak
Mikologia erakusketa
Herri bazkaria
Herriko plaza

04.21 Larumbata
LAUDIO
ITXARKUNDIA DANTZA TALDEAREN JAIA
11:30 // Kalejira
12:00 // Umeentzako joko eta tailerrak. Baserritar eta artisauen laguntza
18:00 // Dantza Alardea
20:00 // Zozketak eta diskofesta
Aldai plaza

04.22 Igandea
LAUDIO
DANTZARI EGUNA
11:00 // Dantzarien kontzentrazioa
12:00 // Dantzarien kalejira
13:00 // Dantza alardea
14:30 // Bazkaria
16:00 // Herri kirolak umeentzat
17:00 // Batukada
18:00 // Dantza Plaza
Aldai plaza

INFO +
aiaraldea.eus



Ezagutu gure kultura




Doako frutikultura

ikastaroa
Okondoko Eskolan

Doako frutikultura ikastaroa eskainiko dute datorren larunbatean -apirilak 14- Okondoko Eskolan. Hiru orduko iraupena izango du, 11:00etatik 14:00ak arte izango baita. Leku kopuru mugatua egongo da eta interesdunek aurretik eman behar dute izena udaletxera deituta -945 89 80 23-.

Kartelera



LAUDIOALDE
ARETOA

El club de los buenos infieles
APIRILAK

13/14/15/ 16,
OSTIRALA, LARUNBATA,
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 euro)



LAUDIOALDE
ARETOA

The big sick
APIRILAK 14
LARUNBATA,
(3 euro)

17:30 / 20:00



LAUDIOALDE
ARETOA

La delgada línea amarilla
APIRILAK

20, 21, 22, 23
OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA
ETA ASTELEHENA (5 euro)



AMURRIO
ANTZOKIA

Mazinger Z: Infinity
APIRILAK 22

IGANDEA
(3,7 euro)
17:30



DONIBANE
ARETOA

Errementari
APIRILAK 15,
IGANDEA (4,5 euro)

19:00



DONIBANE
ARETOA

La Tribu
APIRILAK 22,
IGANDEA (4,5 euro)

19:00



AMURRIO
ANTZOKIA

Elkarrekin together
APIRILAK 16
ASTELEHENA (Doan)

19:15



AMURRIO
ANTZOKIA

Gorrion rojo
APIRILAK 22, 23
IGANDEA (3,7 euro)

19:30 / 20:00

Larumbata
19:30 AMURRIO
AMURRIOKO TXIRRINDULARITZA TALDEKO AURKEZPENA
Amurrio Antzokia

TAILERRAK

04.14 Larumbata
11:00 LAUDIO
OKUPAZIO TAILERRA + BAZKARIA
Gaztetxea

04.16 Astelehena
17:00 ARESPALDITZA
AHOTS TAILERRA
Hilaren 18 eta 19an ere egingo dira saloak
Emakumeen gela

04.17 Astearte
17:00 ARTZINIEGA
EMAKUMEENTZAKO ANTZERKI TAILERRA
Udaletxe zaharra

04.17 Astearte
18:00 ARESPALDITZA
LUNTX ETA ASKARI OSASUNTUAK
Udaletxea

04.20 Ostirala
17:00 LAUDIO
INTXARKUNDIAREN 40. URTEURRENA
Eskulan tailerrak
Herriko plaza

ANTZERKIA

04.14 Larumbata
20:00 AMURRIO
“LA GRAN AVENTURA DE LA ZARZUELA”
Sarrera: 8 euro
Amurrio Antzokia

04.15 Igandea
20:00 AMURRIO
“LA GRAN AVENTURA DE LA ZARZUELA”
Sarrera: 8 euro
Amurrio Antzokia

04.16 Astelehena
17:00 ARTZINIEGA
“DE MAYOR QUIERO SER...”
Udaletxe zaharra

eskaintza berria!

APIRILA

14 The Binilo's
20:00
(umore-musika hirukotea)

20 Bodegas del Medievo dastatzea
20:00
Info+: Tolon

21 Alberto Inunciaga
14:30
(80. eta 90. hamarkadako bertsioak)

Joaco Rodriguez
17:00
(Blues harmonikarekin)
Eriz **20:00**
(Bertsioak)

27 Apirilko feria: Eder Teba
20:00
(flamenko-pop)

28 Apirilko feria: Los Primos a compas de Flamenkito
14:00
(runba)
Raices
20:00
(Trianako dantza taldea)

MAIATZA

26 Cowboy

Aldai enparantza,LAUDIO
☎ 672 23 50 65
www.tolobar.com
f

Kultura

Apirilaren 30era arte egongo da musika lehiaketan izena emateko epea. Bi kategoria egongo dira: Rock eta metal taldeena eta beste estiloetako musikariena.

Burubio elkarteak sortu du ekimena, Amurrioko Udalarekin, Musika Eskolarekin eta Aiaraldea Ekintzen Faktoriarekin elkarlanean.

40 talde baino gehiago aurkeztu dira dagoeneko Amurrirockera



Ekainaren 15ean izango da finala, Amurrioren. Lau taldek joko dute azken txanpa horretan. Aiaraldea.eus



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Oso harrera ona izaten ari da Amurriock musika lehiaketa. 40 talde baino gehiago aurkeztu dira dagoeneko, eta gehiago batuko direla aurreikusi daiteke, oraindik hilabete falta baita izena emateko epea amaitzeko.

“Euskal Herriko taldeak aurkeztu dira, batez ere”, azaldu du Egoitz Palacios, “baina badaude baita Madril, Valentzia edota Logroñokoak ere”. Musika estiloari dagokionez, Burubioko kideak adierazi du “metal eta rocka” jotzen duten taldeak direla gehienak, “pop eta folk kutsukoak edota bakarlariak ere dauden arren”.

Amurrioko Udalarekin, Musika Eskolarekin eta Aiaraldea Ekintzen Faktoriarekin elkarlanean antolatu du Burubiok

norgehiagoka musikala. Antolatzaileek nabarmendu dute Aiaraldera zein Euskal Herrira begirako ekimena izango dela. “Horregatik ez dugu izen-ematea mugatu, Euskal Herri osoko taldeek izango dute parte hartzeko aukera”, aurreratu du Palacios. Apirilaren 30era arte egongo da lehiaketan izena emateko epea. “Burubioko.com atarian dagoen formularioa bete behar da horretarako”. Horrez gain, hiru kanta bidali behar dira amurriock@gmail.com helbide elektronikora mp3 formatuan, taldearen argazki batekin batera -jpg formatuan-.

Hainbat muga

Hala ere, hainbat muga jarri dituzte antolatzaileek. Talde parte hartzaileek ezingo dute kontratu diskografikorik izan, ez eta bi disko baino gehiago

argitaratuta. Kantuak “orijinalak eta norberak sortuak” izan beharko dira, eta parte hartzaileak prest egon beharko dira finalerdietan eta Amurrioko jaietan jotzeko, baldin eta horretarako hautatzen badituzte.

Bi kategoria

Antolatzaileek azaldu dute bi kategoria izango dituela lehiaketak: Rock eta metal taldeena alde batetik, eta beste musika estilo batzuk jorratzen dituztenena bestetik. “Uste dugu talde gehienak lehen kategorian aurkeztuko direla”, aurreratu du Palacios, taldeen hautaketarako jarraituko den prozesua azaltzearekin batera. “Elkarteak bi asteko tarte hartuko du taldeen abestiak baloratu eta finalerdietara zeintzuk igaroko diren erabakitzeko”. Lau finalerdi egingo dituzte Burubioren pabi-

12 talde igoko dira oholtzara finalerdietan eta horietako lau igaroko dira ekainaren 15ean egingo den finalera

lioian, maiatzaren 18tik ekainaren 10era bitarteko asteburuetan. 12 talde igoko dira oholtzara sailkapen-fase horretan, kategoria bakoitzeko sei.

Finala ekainaren 15ean

Zehaztua dute dagoeneko noiz egingo den finala: ekainaren 15ean, Amurrioko Aste Musikalaren barruan. Lau taldek joko dute guztira azken txanpa horretan. Hiru sari banatuko dituzte kategoria bakoitzean. Lehen postuan geratzen diren taldeek 700 euro jasoko dituzte eta telonero gisa arituko dira “Amurrioko jaietako kontzertu handietan”. Bigarren sariak 200 eurokoak izango dira. Horrez gain, hirugarren sari bat ebatziko da Aiaraldeko kideak dituzten talde artean: Burubioren grabaketa estudioan zuzeneko hiru abesti grabatzeko aukera.

Bere bosgarren diskoa plazaratu du Sirokak



Eriz Perez eta Joseba Urruela batu dira taldera. Eider Iturriaga - Izarbe Photo

Testua
Aitor Aspuru Saez

Disko berria plazaratu du Siroka musika taldeak, bere ibilbideko bosgarrena. 6 abestik osatzen dute lana eta *Buruz behera* du

izenburu. Urduñako bi musikari batu dira taldera: Eriz Perez eta Joseba Urruela. Formatu fisikokoan zein doan eskuratu daiteke diskoa. Iragan larunbatean aurkeztu zuten lana Burubio kultur elkartearen.

SOS Parkea eta Aspanovas batuko ditu Parkoreografia lehiaketaren edizio berriak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Datorren maiatzaren 26an egingo da "Parkoreografia" lehiaketaren IV. edizioa. Audioko Aldai plazan izango da zita, 17:30ean. SOS Lamuza Parkea plataforma izan da aurreko hiru edizioen antolatzailea. Oraingoan baina, Aspanovas-Bizkaiko Minbizidun Haurren Gurasoen elkar-teea batu da ekimenera.

Izena emateko epea maiatzaren 20ra arte egongo da irekita www.sosparkea.com atarian. Antolatzaileek azpimarratu dute positiboki baloratu dela erabiltzen diren abestiek berdintasunaren eta sexu-aniztasunaren edota pertsonen jatorriaren aurkako mezurik ez izatea.

Lau sari berezi

Aurreko edizioetan bezala, hiru kategoria izango ditu norgehiagokak: Haurrena (0-12 urte), Gazteena (13-18 urte) eta Seniorena (18 urtetik gorakoak). Adin-tarte bakoitzean gailentzen den taldeak ondorengo sarietako bat jasoko du: Dantzako *master class* baterako matrikula edo dantza-ikuskizun bat ikusteko sarrerak Euskal Herriko hiri batean.

Horrez gain, lau sari berezi egongo dira: Jantzkerarik hoberearena, animazioarena, orijinaltasunarena eta euskarazko abesti batekin egiten den dantza onenarena. Kategoria horietako irabazleek taldekide guztientzako askari edo afari bat jasoko dute opari, Audioko taberna edo jatetxe batean.

"Bertsoa Bizi Gazte" ekimenean ari dira parte hartzen Amurrio eta Audioko gazteak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Abian da aurtengo "Bertsoa bizi gazte" lehiaketa. Martxoaren erdialdean aurkeztu zuten, eta dagoeneko Arabako hainbat herri-tan egin dituzte saioak.

Julen Zulaika arduradunak azaldu duenez, Audioko hiru ikastetxeetan eta Amurrioko bi eskole-tan gauzatu dituzte tailerrak. Bertsoa gazteengana gerturatzea helburu, herri mailako topaketak ere antolatu dituzte. Audiokoa, esaterako, martxoaren 23an izan zen; Audioalde aretoan.

Bertan elkartu ziren Audio Ikastolako nerabeak, Audio BHIkoak eta La Milagrosa eskolakoak.

"Zaraoben eta Aresketa Ikastolan egingo ditugu hurrengo emanaldiak".

"Bertsoa bizi gazte" lehiaketa

Behin eskoletako tailerrak emanda, Amurrioren eta Audion ikastaro laburrak egingo ditu Arabako Bertsozale Elkartek, bideo-klipak egiten laguntzeko gazteei.

Gaiaren aukeraketa taldearen esku geratuko da, baita modalitatea ere: bertso musikatua, abestiei letrak aldatzea edota rap moldaera. Partaideei dagokienez, 3-8 lagunek osatu beharko dute taldea. Lanak euskara hutsean egon beharko dira.

Epeei dagokienez, maiatzaren 4a izango da entregatzeko azken

eguna. Gazte guztiekin Legutien egingo dute "BBG eguna". "Bertan bideo-klipak ikusiko ditugu, bertsoari gazteen eskolarteko saioaz gozatu, sariak banatu, herri bazkaria, kontzertuak... Egun osoko egitaraua prestatu dugu gazteen gozamenerako", erantsi du.

4 sari

Orotara lau sari banatuko dituzte: bideo-klip onenaren saria, originalarena, webguneko bozkatuena eta txalometroarena. Bideo guztiak nibanaxarabakoa.eus webgunean egongo dira ikusgai.

Irabazleek irailaren 7, 8 eta 9an asteburupasa izango dute ordain, Eulaten, Urbasako natur-parkean (Nafarroa) kirol abentura eginez.

Otxomaioetako dantza txapelketan izena emateko epea, zabalik



Apirilaren 13ra arte egongo da norgehiagokan izena emateko epea. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Apirilaren 13ra arte egongo da zabalik Otxomaioetako Aurreku eta Fandango eta Arin-arin txapelketan izena emateko epea. Maiatzaren 12an izango da norgehiagoka, 18:30ean Urduñako

Gernika plazan. Erauntsi dantza taldeak antolatzen du ekimena. Gehienez bosna aurrekulari eta fandango eta arin-arin bikotek hartu ahalko dute parte.

Otxomaio txapelketa@hot-mail.com helbide elektronikora mezu bat bidalita eman daiteke izena.

Hiru dominarekin itzuli da Audio Wellness Orbe txapelketatik

Hiru sari erdietsi dituzte dantza talde audioarreko kideek. Audio Urban Project taldeak brontzea lortu zuen eta Audio Wellness Soundek zilarra. Audio Wellness Crew taldeak, aldiz, Orbe sarien 3. postua erdietsi zuen.

Domina ugari lortu dute Nuria & Raquel-eko kideek

100 dantzari bertaratu ziren Burgozera, Orbe txapelketako bi kategoriatan lehiatzera: ballet klasikoan eta jazzean -dantza modernoan-. "Oso-oso pozik gaude lortutako emaitzekin", azaldu du Raquel Lopez Alvarez irakasleak.

AMURRIOCK

musika **2018** lehiaketa

IZENA EMATEKO EPEA
martxoak 19 // apirilak 30

KATEGORIAK
* Rock / Metal
* Beste estiloak

INFORMAZIO GUZTIA
www.burubioke.com

ANTOLATZALEAK

HAHURRAREN

1. SARIA 700 KONZERTUA AURERIKO ANETAN

2. SARIA 200

*** SARI BEREZIA**
Aldizkari partekatuaren bidez izan daiteke "OHENAREN ZAT" Live session gisa

Kultura

“Kalean jotzeak asko aberastu nau”

SABIN GUARESTI (Amurrio, 1993) BA!GOAZ TELEBISTA SAIOAN ARI DA PARTE HARTZEN. KALE ARTISTA IZAKI, TELEBISTAN ETA KALEAN JOTZEAREN ERAGINAZ MINTZATU DA.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**
Argazkia **Oscar Tejada**

Abeslarien lehiaketa batean zabilta. Nolakoa ari da izaten esperientzia?

Itzela. Asko ikasten ari naiz, eta lagun berriak egin ditut. Bizitzan ekarpena egiten duten gauzak eskertze-koak dira. Eskerrak eman nahi dizkiot bertako jendea-ri han egoteko aukera emateagatik. Telebista barru-rik nolakoa den ikusi dut. Oso aberasgarria da musi-kaz bizi den jendearengandik ikastea. Ba!goaz-en inoiz egin gabeko gauzak egin ditut; pertsonaia batzuk imi-tatu... Ondo entseatu ditut abestiak, eta hori ez dut sekula egin.

Zertan datza programa?

Sistema honakoa da: 8 *coach* daude; aktoreak, abes-lariak... Euskal Herrian musika zein zinema munduan ibilbide luzea egin duten pertsonak dira. Astero abes-lari partaide bat eta kantu bat hautatzen dituzte. Guk haiekin entseatzen dugu, koreografia osatzen dugu eta nola abestu ikasi ere bai. *coachek* bozketa egiten dute: lehen fasean partaideen erdiak kanporatzen di-tuzte. Bigarren fasean, berriz, banaka lehiatzen gara. Oso sistema polita da.

Musikari gisa lehendik ere hamaika plaza eginak dituzu...

Nireak plazak baino, kaleak dira! 24 urte ditut, bai-na egia da urte askoan ibili naizela toki batetik beste-ra musikagintzan. Hasieran 5 lagunekin jotzen nuen kalean. Atera genuen diruarekin furgoneta zahar bat erosi genuen, Andaluziara joan eta bertan joz bizitze-ko. Alde egin baino egun bat lehenago ohartu ginen

ez zela posible, furgoneta horrekin ezin ginela urru-ti iritsi. Kotxez jaitsi ginen... Herrietara joan, bateria-rekin funtzionatzen duten anplifikagailuak jarri eta horrela aritu ginen!

Asko jo dugula egia da, baina ni ez naiz musikaria senti-tzen. Musikaria niretzat ikasketaduna da, ni zaletua naiz.

Kale artistatzat zaituzte askok...

18 urte ditudanetik nabil kalean jotzen. Bilbon, Donostian, Biarritzen... Frantzian ere, baina udaltzainek bota egin gin-tuzten!

Orain lanean hasi naiz, baina kalera joaten jarraitzen dut, bertan sentitzen naiz ondoen: musika baloratzen duena ge-ratzen da, eta besteek oinez jarraitzen dute, ez dago inola-ko problemarik. Niretzat asteko momentu onena da musi-ka tresnak hartu eta Bilboko Gran Via kalera joatea. Egia da 18 urterekin taldetxoa joaten ginela, baina 20 urterekin ba-natu egin ginen, nork bere kasa jarraitu du. Nik bakarrik joa-ten jarraitzen dut. Hasieran kosta egiten da, jendartea hezi behar da, ezarritako kanona gainditu beharra dago. Jendeak badakit nitaz hitz egiten duela: “honek kalean jotzen du”. Eta hala da, gustatzen zaidalako noa, ondo sentitzen naizelako. Bakoitzak benetan gustuko duena egin behar du.

Kaleak asko aberastu nau. Jende asko ezagutu dut, lotsa kendu... 18-20 urterekin bakarrik nindoanendardara sartzen zitzaidan musika tresnak lurrean uztean. Oso esperientzia polita da kalean jotzea, beti jarraituko dut.

Gazte sortzaileentzat kontzertuak falta dira, zure ustez?

Kontzertuak egon badaude. Badira antolatzen dituzten era-kundeak eta tabernak. Kontua da zenbat emanaldi eman dai-tezkeen. Musika kultura oso eskasa da gure herrietan, hala ere. Tabernetan jotzea gastua da, eta jendearen aldetik eran-tzunik ez badago zaila da kontzertuak antolatzea.

Telebistan agertzeak abeslariari indarra edo bultzada ematen al dio?

Ez dakit nola esan edo erantzun... Egia da egindako tele-bistako galetan iritziak jasotzen ditugula. Ezin da ukatu te-lebista sekulako tresna dela egiten duzuna jendeak ikusteko.

Dena den, euskarri ona bezain txarra izan litekeelakoan nago. Telebistara bazoaz egiten duzun lana ona izan behar da, bestela oihartzun txarra izan lezake eta. Telebista izatea ona da, baldin eta gauzak ondo egiten badituzu. Beste gauza bat da zure kanta telebistan edo irratian zabaltzea; horrek, duda barik, indarra ematen dio musikariari.

Zure abestiak ala besteenak, zeintzuk kantatzen ditu-zu gusturen?

Biak. Egia da besteen lanak interpretatzean, entzuleen feed-backa handiagoa dela, kantua ezagunagoa delako. Dena den, etxean bakarrik abesteko nireak nahiago ditut, nik sortuak direlako, nire istorioak.

Noiz entzungo dugu Sabin Guarestiren diskoa edo kon-tzertua?

2018ko urtarrilean nire abestiak grabatzeko urtea izan-go zela esan nuen. 18 urterekin egindako kanta batzuk ditut kutxan gordeta eta sekulako gogoia dut grabatzeko. Pena da lan batzuk gordeta izatea eta jendeak ez entzutea. Talde bat egin dugu, Sabin izenekoa, eta entseatzen hasiko gara. Be-raz, gutxika-gutxika pausoak ematen gabiltza, aurrera goaz.

Donostiko Fnac saltokiak antolatuko duen jaian joko dugu ekainaren 23an. Izan ere, kalean jotzen nengoela bertakolan-gile bat hurbildu zen, eta CDa erosi zidan. Beti izaten dut 7 kanturekin disko bat salgai kalean. Asteburuan ikusi nin-duen eta astelehenean idatzi zidan bertan jotzeko eskatuz. Sekulako poza eman zidan, izugarria da jendeak zure lana balioan jartzea.

Kirola

Besaide Astobiza, Jon Fonbellida eta Iker Zubizarreta airaldearrak Himalayara bidaiatuko dute urrian “Oxigenoa Euskarari” ekimenaren eskutik, Euskal Herriaren eta Sherpa herriaren arteko zubiak eraikitze asmoarekin. Hainbat ekimen egingo dituzte datozen hilabeteetan, bidaia finantzatzeko.

Hiru gazte aiaraldear Himalayara, “herrien arteko zubiak eraikitza”



Euskal Herriko zazpi lurraldeetako hamabi gazte joango dira guztira Himalayara. Aiaraldea.eus



Besaide Astobiza

Ekimeneko partaidea

*“Mendi-
zaletasuna eta
euskara sustatu
nahi ditugu gure
jardunarekin”*



Iker Zubizarreta

Ekimeneko partaidea

*“Bidaia
gauzatzeko
beharreko
finantziazioa
lortu behar
dugu orain”*



Jon Fonbellida

Ekimeneko partaidea

*“Crowdfunding
kanpaina
egingo dugu
dirua biltzeko,
besteak beste”*



Testua **Aimar
Gutierrez Bidarte**

Bi herriren arteko zubiak eraiki eta sendotu, hori da “Oxigenoa Euskarari 6000 metrotan” ekimenaren xedea. Euskal Herria eta Sherpa herria elkarlanean jarriko ditu, hamabi gazte euskaldunek eta hamabi sherpa gazteek beteko duten zeharkaldian.

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako hainbat gazte osatzen dute udazkenean Himalayara bidaiatuko duen taldea. Felipe Uriarte mendi gidari eskarmentatuaren laguntza izango dute zeharkaldian, Julen Reta mendi gidari audioarrarekin batera.

Hamabi gazteen artean hiru aiaraldearrak dira: Besaide Astobiza Orozkokoa eta Jon Fonbellida eta Iker Zubizarreta laudioarrak. Martxoaren bukaeran elkartu zen taldea lehendabizikoz, Orozkon. Prestaketa fisiko eta tekniko baten abagunea izan zen, bide luzea baitute aurretik; “bidaia gauzatzeko beharrezko

finantziazioa lortu behar dugu orain” azaldu du Iker Zubizarretak.

Aurrelanketan buru-belarri

Udazkenean dira Himalayara joatekoak, baina aurretik bidaia gauzatu ahal izateko dirua bildu beharko dute. Egindako kalkuluen arabera, 6000 euro batu beharko dute parte-hartzaileko. “Bildutako diruarekin bertara bidaiatzeko aukera izango dugu, bai eta datorren ikasturtean Sherpa gazteak hona etortzeko ere”.

Aukera desberdinak jarri dituzte mahaigainean “crowdfunding kanpaina abiatuko dugu, kamisetak jarriko ditugu salgai eta Oñatin bertso-saioa antolatuko dugu, besteak beste” azpimarratu du Fonbellidak. Zirrara bizi dituzte zeharkaldiaren aurreko hilabete hauek. “Jakitun gara lan asko egin beharko dugula Himalayara joan aurretik, mendi zaletasuna eta euskara sustatu nahi ditugu gure jardunarekin” dio Besaide Astobizak.

Esparru fisikoan ere lan egin-

go dute udazkena bitarte. Euskal Herriko gailur desberdinak igoko dituzte eta kranpoi zein sokekin moldatzen ere ikasiko dute.

Felipe Uriarte mendi-gidariaren hitzetan; “hau ez da lasterketa, ezta txapelketa, elkarlanean oinarritutako bidaia baizik”. Zentzu horretan talde modura funtzionatzen ikasi beharko dute, norberaren eta taldearen erritmo eta gaitasunak ezagututa.

Zubigintza ardatz

Hizkuntza gutxitua duen herria ere bada Sherpa Herria. Kirol erronka baino, herrigintza ekimen bezala ulertzen dute zeharkaldia. Euskara eta Sherpa hizkuntzak erdigunean jarrita, hauek elkar elikatzea dute helburu. “Alpinistek Himalaya kolonizatu dute eta ingelesa inposatu bertako mendi aktibitateen ardatz gisa. Guk bertako hizkuntza gutxituan eraiki nahi ditugu harremanak, bertan bizi direnekin.”

Mendizale gazteek, gutxienez, Sherpa hizkuntzako 50 hitz ikas-

teko helburua jarriko diote euren buruei.

Joan-itzuliko bidaia da, ordea, aiaraldear gazteek egingo dutena, datorren ikasturtean zeharkaldian bidelagun izango dituzten Sherpa kideak Euskal Herria etorriko baitira.

Azpimarratu dute ere, zubigintza ez dutela soilik Sherpa herriarekin garatu, Euskal Herriko txoko desberdinetako gazteak biltzeak ere, zazpi herrialdeen arteko loturak estutzeko balio izan diela gaineratu dute. “Euskal Herri osoko lagun berriak ezagutzeko aukera paregabea izan dugu, euskaldunak gure artean sartzeko tresna ere bada ekimen hau, bai eta gure herria askoz hobeto ezagutzeko ere.”

Felipe Uriarte baikor agertu da taldearekin: “Aukera paregabea daukate aurretik elkar ezagutu eta pertsona bezala hazteko, Himalayako bidaia barne-bidaia ere badelako. Leku berean hasi eta bukatu arren, mendizalea ez da inoiz hasierakoa izango etxera itzultzean. Prozesu horretaz gozatu behar dute”.

Kirola

“Abiadura da irristaketan aritzetik gehien gustatzen zaidana”



LEIRE ETXABURU ITURRIAGA (Durango, 1983)
AMURRION BIZI DA ETA BIGARREN POSTUA LORTU
DU ETXEBARRIKO HERRI KROSEAN EGINIKO
PATIN-LASTERKETAN.



Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Bigarren postua lortu duzu Etxebarriko Herri Krosean. Zer moduz?

Oso ondo. Ez neukan joateko asmorik, duela bost hila-bete ama izan nintzelako berriz eta ez dudalako entrenatzeko denborarik izan. Entrenamendu gisa hartzea pentsatu genuen, ahal genuena egiteko, eta ondo atera zen.

Noiztik zabilta irristaketan?

Txikitatik. Lau urterekin hasi nintzen ikastolako lagunekin eta orduz geroztik ez diot irristatzeari utzi.

Eta lehiatzen?

Beranduago. Mutil-lagunak animatu ninduen, Amurriora bizitzera etorri nintzenen. Gaubela taldearekin iriteten hasi nintzen, Gasteizen.

Orduan ezagutu nuen abiadura irristaketa, eta asko gustatu zitzaidan. Ama izan nintzenen Amurriotik gertuago zegoen taldea bilatzeari ekin nion eta Audioko Al-daiko Irriaketa Taldearekin jarri nintzen harremanetan. Hiru urte daramatzat bertan, eta oso pozik.

Zertan datza taldearen jarduna?

Teknika lantzen dugu, gehienbat. Komeni da aurretik patinetan ibiltzen jakitea. Abiadura irristaketan aritzen gara, batez ere. Astelehenetan teknika lantzen dugu kiroldegian. Asteazkenetan, aldiz, Laudiotik ateratzen gara, “pintxopote-ibilbidea” egiteko.

Baina, zoritxarrez, Audiok ez ditu irristaketan egiteko moduko kilometro asko. Ahal duguna egiten dugu. 15 kilometro inguru egiten ditugu, baina gogoko genuke entrenatzeko leku bat izatea.

Amurriotik Audiورا dagoen bidegorria ezin da patinekin egin. Gustatuko litzaiguke bide hori moldatzea, bertan entrenatzeko aukera izateko. Oso urrunera joan behar izaten gara bestela. Asteburuetan Sodupeko bidegorrira, Gasteizera edo Barakaldora gerturatzen gara. Askok mugitu behar izaten gara entrenamendu ona egiteko.

Zer nolako maila dago eskualdean?

Emakume asko daude Audioko taldean, eta gazteak oso indartsu datoz. Basauriko Bad Roller taldean ere neska asko daude eta maila oso altua dute.

Zenbateko abiaduran ibiltzera iritsi zaitezke?

Bataz beste 30 kilometroko abiadura lortzea da helburua, oso zaila den arren. Ni 24-25 kilometro orduko abiaduran ibiltzen naiz normalean. Umeak izan baino lehen, orduko 27 kilometro egitera iristen nintzen. Kasuaren arabera 60 kilometro orduko abiadura hartu dezakezu, edo gehiago.

Geroz eta azkarrago, orduan eta kolpe latzak jasotzeko arrisku gehiago...

Horregatik da garrantzitsua teknika lantzea. Geroz eta patin handiagoak eraman orduan eta arrisku handiagoa duzu erorketa bat izateko.

Zer helburu dituzue aurtengo denboraldiari begira?

Etxebarriko denboraldiko lehen lasterketa izan da, berotzen hasteko.

Ondo hasi zara, beraz.

Bai, espero ez nuen arren. Gorputzak ondo erantzundit, duela gutxi ama izan naizela kontuan hartuta. Gure

helburua talde gisa da geroz eta pertsona gehiago animatzea egiten ditugun ibilbideetan parte hartzea.

Guretzat norgehiagokarik garrantzitsuenak Gasteizko maratona da. Aurretik beste lasterketa batzuk daude, presaketa gisa balio dutenak. P2Pa amaitzea ere oso garrantzitsua da guretzat. Iruñean egiten den maratona da, soilik patinena. Gogorrena da, bi portu igo eta jaitsi behar direlako. Munduko patinatzaile onenak etortzen dira.

Gukiaz egin genuen eta aurreikusitako denboran amaitzea lortu genuen, oso latza izan zitzaigun arren.

Zer eskaintzen dizu patinatzeak korrika egiteak ematen ez dizuna?

Oso ezberdina da korrikan edo patinetan aritzea. Askok zailagoa da maratoni bat korrika amaitzea. Patinekin aerobikoki askoz gehiago lantzen dituzu gorputzeko muskulu guztiak, eta belaunak gutxiago sufritzen dute. Abiadura da gustatzen zaidana eta korrika eginez ezinezkoa da abiadura sentsazio hori lortzea.

Orain dela hiru urte minbizia detektatu zidaten, haurdun nengoenean. Igaro nituen igaro beharrekoak, oso zaila izan zen arren.

Urtebetez egon nintzen patinatu gabe. Baina sendatu nintzenen Audioko taldearekin elkartu nintzen, eta bertako neska-mutilek asko lagundu ninduten. Ekintza asko egiten dituzte urtean.

Otsailean “Inauterien ibilbidea” egiten dugu moztortuta eta “Argien bidea”, aldiz, abenduan. Urtarrilean Patin Eguna antolatzen dugu, hainbat estilotan aritzen diren patinatzaileen erakustaldiekin. Jende pila elkartzen da, giro ezin hobean.

Askok mugitzen gara, asteburu guztietan dago zerbait. Maila guztietako kideak aritzen gara elkarrekin, abiadura moldatu egiten dugu dagoen jendearen arabera.

HANDBIKE

Bi garaipen erdietsi ditu Ione Basterrak Espainiako Kopan



Lehen postua erdietsi zuen Basterrak bi lasterketetan. I.B.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bi lasterketa izan ditu Ione Basterra asteburuan: Tomelloson -Ciudad Real- izan da bata eta Arcasen -Cuenca- bestea. Espainiako Handbike Kopako lehen bi norgehiagokak izan dira, eta Basterra pozik geratu da lortutako emaitzekin, bi lasterketetan lortu baitu lehen postua. “Oso pozik nago egindako lanarekin, oso ondo sentitu naiz lasterketa bietan”, adierazi du kirolari orozkoarrak.

Promesas Cofidis taldearekin aritu da Basterra bi lasterketetan. “Taldea hau Cofidis enpresaren laguntzarekin sortu berri da txirrindularitza egokitu gaitzen gaitzen gazteak ahalik eta gehien laguntzeko

helburuarekin etorkizun batean errendimendu altuko kirolariak izatera heldu gaitzen”, azaldu du kirolariak. Maila horretara iristeko oraindik lan asko egin behar du Basterrak, baina oso pozik dago eman dioten aukerarekin eta “topera” aprobe txatuko duela ziurtatu du. “Oraingo taldea sei txirrindulari osatzen dugu, modalitate desberdinetakoak”. Hala ere, Saiatu fundazioko txirrindularia izaten jarraitzen du Basterrak.

Erronka berriak

Bi aste barru Madrilgo maratoian parte hartuko du orozkoarrak. Maiatza “hilabete garrantzitsua” izango dela dio, “Espainiako Kopako beste proba bat daukat eta baita Espainiako txapelketa ere”.

TRAILA

Aritz Esteban eta Zuriñe Frutos garaile Bizkaiko Kopa Traileko lehen lasterketan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Arrietan lehiatu zen lehenengo trail lasterketa eta Aritz Esteban Orkatzak talde audioarreko kideak garaipena lortu zuen 20 kilometroko kategorian eta Zuriñe Frutos artziniegarrak, aldiz, mendi bizikletan.

Estebanek ordubete, 29 minutu eta 20 segundo baliatu zituen ibilbidea betetzeko. Bigarren sailkatuak 15 segundo geroago gurutzatu zuen helmuga. Frutosek, ordea, ordubete, 36

minutu eta 13 segundotan heldu zen amaierara eta ia minutuko abantaila eskuratu zuen hurrengo sailkatuari dagokionez.

Bizkaiko Kopa Trailaren hurrengo hitzordua apirilaren 29an izango da Lemoizen. Aritz Estebanek adierazi du lidergoa defendatzeko asmoa duela, eta Bizkaiko Kopako proba guztietan parte hartuko du, ahal duen neurrian. Frutosen xedea berdina da, baina uda ostean arazoak izango ditu lasterketa guztietan aritzeko, izan ere, oso luzea da txapelketa.

ATLETISMOA

Ekainaren 17an egingo da VI. Josito Memoriala

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Josito Memorialaren VI. edizioaren kartela aurkeztu du Audioko Atletismo Klubak. Ekainaren 17an egingo da, 11:00etan. Parte hartzaileek 10 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Izen-ematea irekita dago Turesultado.es webgunean.

Handitu egin dute parte hartzaileen gehieneko kopurua: 800 korrikalari inskribatu ahaliko dira. “Nahi duen orok parte hartzeko aukera izatea bermatu nahi dugu”,

azaldu du Alberto Talledok. Atletismo klubeko presidenteak nabarmendu du “korrikalari herrikoia-ren figura” indartu nahi dutela. Dortsalak zozketatuko dituzte horretarako parte hartzaileen artean, lasterketa amaitzean.

Umeentzako lasterketak

Haurrek ere izango dute parte hartzeko beta. 8-10 urte bitartekoek 10:20ean izango dute zita, 11-13 urtekoek 10:25ean eta 10 minutu beranduago, aldiz, “Txupete” kategoriakoek.

Zornotzako udaberri saria irabazi dute Aiarako txirrindulariek

Aiarako Txirrindulari Elkarteko kadeteek lehen postua lortu zuten Zornotzako Udaberri Sarian, taldekako kategorian. “Beti da pozgarria taldeka lasterketa bat irabaztea”. Hala eman zuten jakitera Aiarako Txirrindulari Elkarteko arduradunek lasterketaren ostean.

Emaitzari buruz, poza nabarmendu zuten taldekideek: “Zornotzako Udaberri Sariak tradizio eta garrantzi handia du. Bide beretik jarraitzera animatzen gaitu”.

babestutako edukia

“Komunikazioaren arlo desberdinak lantzen ditugu lan-sekuentzien bidez”

ASIER OLABARRIA (Audiio, 22 urte) IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA GRADUKO 4. MAILA IKASTEN ARI DA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAN, ARETXABALETAKO CAMPUSEAN.

Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Komunikazioaren alor ezberdinak gustatzen zitzaizkidan eta gradu honetan nire burua haue-tan guztietan trebatzeko aukera izango nuela ikusi nuen. Mondragon Unibertsitatea aukeratu izanaren arrazoiak izan dira eraiki-na bera eta bere instalazioak, eta baita bere irakasteko modua ere.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

2014ko irailean hasi nintzen eta ez du ematen hainbeste urte hain azkar pasa direnik. Nire helburua karrera honetan esparru ezberdinetan trebatzea zen, eta hori lortu dudala uste dut. Diseinua, animazioa, argazkigintza, dokumentala eta telebista saioa grabatzea izan dira, besteak beste, landu ditugunak.

Nola definituko zenuke HUIHEZIn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Nire bizitzan bi ikasteko metodologia izan ditut: denok jaso duguna (tradizionala) eta Mondragon Unibertsitatekoa. Hone-tan garrantzi handia ematen zaio talde-lanari eta arlo praktikoari.



Mondragon Unibertsitatean ikastean ari da Asier Olabarria.

Ikasitako guztia gero praktikan jartzen da.

Gainera, gradu honetako metodologian, ikasgaien orde-z, lan-sekuentzia izeneko moduluak ematen dira, konpetentzia batzuei lotuta. Hainbat ikasgai aste berean landu beharrean, sekuentzia batean zentratzen gara, eta irauten duen aste kopurua bera da ardatza. Modu honetan, jardun bakar batean zentratu eta bertan ikasten diren gauzak hobeto barneratzen dira.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zer bait hobetzeko?

Ikaste metodologiaz gain, ira-

kasleak zurekiko duen harremana. Klaseak 40-50 ikasle inguru izaten ditu, baina gero, gela bitan banatzean, ikasle gutxiago eta klaseak pertsonalizatuago izateko aukera ematen du.

Hobetzeko zer bait, fakultatera heltzeko modua da, garraioak askotan ez duelako bat egiten ordu-tegiarekin.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Behin gradua amaituta, master bat egiteko asmoa daukat. Marketing eta komunikazio korporatiboak azkenaldian interesa piztu didate, eta horretan enfokatu nahi nuke nire burua.

Kirola



**MAIDER LOPEZ
ECHABE**
KAZETARIA

Gutxietsiei aurre egiten

“Sexu ahula da”, “ezinezkoa da beraientzat”, “ezin dira emakumeen merituak gizonezkoekin konparatu”. Ez dira adierazpen bakanak, bizitzan zehar kirola praktikatu duten emakume gehienek behin baino gehiagotan entzun behar izan dituzten esaldiak baizik. Urteak pasa ahala adierazpen horiek gezurrak direla frogatu da.

Mireia Belmonte, Garbiñe Muguruza, Edurne Pasaban, Lydia Valentín... elitean lehiatzea eta irabaztea lortu duten makina bat emakumeren izenak. Kirolari hauek emakumeek kirolean garrantzi handia dutela erakutsi dute, ez da sexu ahula, ez da ezinezkoa beraientzat, emakume kirolariek eskuratzen dituzten lorpenak gizonezkoekin erkatu daitezke.

Hala eta guztiz ere, emakume kirolariek gizonen baino askoz gutxiago irabazten dute eta gizonen baino gutxiago ateratzen dira komunikabideetan.

Emakumeen Nazioarteko Egunean, martxoaren 8an, bostehun kirolarik baino gehiagok sinatu zuten kirolean berdintasunaren aldeko adierazpena. Idazki horretan hainbat gauza eskatu zituzten, esaterako: hedabideetan gehiago agertzea, emakume kirolariei lan-legepeko kontratuak egitea, edota emakume eta gizon kirolarien lan baldintzak parekatzea.

Eskubideen berdintasunaren alde asko garatu arren, badaugu itxaropena hori lortzeko eta badaude kalitate handiko emakume kirolariak.

FUTBOLA

CD Laudioaren zuzendaritzak dimisioa aurkeztu du

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Dimisioa aurkeztu berri du CD Laudioaren kudeaketaz arduratzen den juntak. Bazkideen bilera bat bat deitu du zuzendaritzak datorren apirilaren 23rako.

Laudioko Kultur Etxeko Arraño aretoan izango da zita. Bi deialdi egin dituzte, 19:00etarako bata eta ordu erdi beranduagorako bestea. “Dimisioa aurkezteko ditugun arrazoiak azalduko ditugu bertan”, aurreratu dute juntako kideek.

TRAILA

Amurrio Trail Lasterketan izena emateko epea, zabalik



Hainbat menditatik ibiliko dira korrikalariak. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Gaur irekiko da Amurrio Trail Lasterketan izena emateko epea, arratsaldeko seietan. Ekainaren 17an izango da zita. Juan Urrutia plazatik abiatuko dira lasterkariak. Antolatzaileek aurreratu dutenez, hiru ibilbide egongo dira.

31 kilometrokoak 1.700 metroko desnibel positiboa izango du eta proba puntugarria izango da Arabako Mendi Lasterketen Koparako zein Euskal Mendizale Federazioaren rankingerako. 22 kilometrokoak 1.050 desnibel positiboa izango du eta Aldama, Peña Negra edota Kuxkumenditik igaroko da, besteak beste. Hirugarren ibilbideak 12 kilometroko luzera izango du eta Kuxkumendi eta Abiagatik igaroko da. Korrikalariak 550 metroko desnibel positiboari egin beharko diote aurre. Kirolprobak.com atarian eman daiteke izena lasterketan.

Norgehiagokaren laugarren edizioa izango da aurtengoa. Antolatzaileen esanetan, “apurka-apurka” hazten joan da ekimena. “Iaz izan genuen parte hartzaile

le kopuru handiena, 400 kirolari inguru”, azaldu du Amurrio Trail Taldeko presidentea den Imanol Llanok. “Ezagunak bihurtu gara dagoeneko mendi lasterketen munduan, bagoaz gure tokia egiten”. Llanok aurreratu du “oso ibilbide polita” osatu dutela eta nabarmendu du “giro aparta” sortzen dela helmugan. “Sariak eta hornidura-postuak tokiko produktuekin osatzen ditugu, gainera”.

Postontzia Inorduin

Udaberri hau oparoa izango Amurrio Trail Taldeko kideentzat, beste proiektu bat baitute esku artean: postontzi bat jarriko dute Inordui mendiaren tontorean. Arabako Mendizale Federazioarekin harremanetan jarri dira proiektua gauzatzeko, eta zonaldea garbitzeko zein postontzia jartzeko baimena eskatu diote Amurrioko Udalari. “Baiezkoa izan da tokiko erakundearen erantzuna, maiatzeko azken asteburuan jarriko dugu, beraz”, jakinarazi du trail taldeko kidea den Axier Vivancok. Mendi ibilaldia antolatuko dute horretarako.

“Euskadiko irristaketa artistikoko txapelketa irabaztea da nire helburua”



Maila guztietako tituluak lortu ditu Zuriñe Solaguren. **Z.S.**

ZURIÑE SOLAGUREN (Laudio, 2003) IRRISTAKETA ARTISTIKOAN ARITZEN DA. BERA DA LAUTXIRRINKA KIROL KLUBEAN MAILA GUZTIETAKO TITULUAK ESKURATU DITUEN LEHENBIZIKO KIROLARIA.

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Noiz hasi zinen irristaketan?

Duela hiru urte, Aste Santuaren ostean izan zen. Txikitatik beti gustatu izan zait dantzatzea eta patinatzea. Horregatik aukeratu nuen kirol hau. Ugaora joatea gogoko nuen, jendea patinatzen ikustera, baina amak argi utzi zidan ez ninduela bertara eramango. Horrela sortu genuen Lautxirrinka.

Zer lantzen duzue irristaketan, batez ere?

Piruetak eta jauziak entrenatzen ditugu, batez ere. Batetik, teknika kontrolatzea: saltoetako desplazamendua, birak, amaitzeko modua... Eta, bestetik, birak ematean posizioari eustea.

Zenbat pertsona zaudete klubean?

42, uste dut. Nagusienek 17 urte dituzte, eta txikiak 4-5. Audio Institutuan ostiraletan eta larunbatetan entrenatzen dugu, eta ostegunetan Gardeako frontoian. Nire kasuan, 3 entrenamendu egiten ditut asteoro, ordu eta erdikoak. Lehiaketetarako dantzak prestatzen ditugu horrela.

Txapelketetan ibilbide labur baina oparoa egin duzu gaur arte.

Nire lehen txapelketa Noainekoa izan zen, Nafarroan. Maila azterketa izan zen, 2016ko mar-

txoaren 3an. Geroztik hainbat tokitan egon naiz: Getxon, Valladoliden, Kantabrian... Guadajajarara ere gonbidatu gintuzten, baina ez ginen joan.

Nolakoak dira txapelketak?

Mailaren arabera. Federatu aurretik “maila azterketak” daude, tituluak lortzeko probak. Eskola Kirolekoek maila lortu behar dute lehenbizi: D, C, B, A eta azkenik, ziurtagiria.

Behin diploma horiek eskuratu, txapelketetarako bideak irekitzen dira.

Zer nolako maila dago Laudion?

Gehienak D mailakoak dira. C mailako hiru kide daude, 2 B-koak eta A-koa bat. Ni orain arte “Ziurtagiriduna” nintzen, baina orain federatua izatea lortu dut.

Zein da zure denboraldi honetako helburua?

Euskadiko txapelketa irabaztea. Erakustaldiak gogoko ditut, baina lehiaketak nahiago, jendea ezagutu eta harremanetzeko aukera eskaintzen dutelako. Maiatzean izango da hori. Denbora gutxi dut kanta prestatzeko.

Orain arte zein sari lortu dituzu?

Lau. Gurutzetako D mailako lehena, Valladoliden A mailako hirugarren postua, Sopelan A mailan txapelduna, eta Errioxan bigarren postua.

Herriko plaza



Nerea
Zorionakkkkkk Nerea!!! Asko maite zaitugu!!
Edorta eta Edorta txiki



Alain / Aiur
5 urte pasa dira gure etxea zoriontasun osoz bete duzuenetik. Zorionak Alain eta Aiur! Asko maite zaituztegu!
Amama, aitite eta izeko



Harri
10 urte jada!! Ze azkar pasatu diren, eta ze polita izan den! Zorionak etxekoan partetik maitia!
Etxekoak



Uztai
Mende laurden ia mundu hone-tan... Berandu bada ere, zorionak Arito jauna!
Esne Potaken politburoa



_BIDALI ZUREA!
Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera apirilaren 20a baino lehen.

Denborapasak



Magis egileak	Azti lanez asmatu	Ukupen	Txinguria, xiraurrea
Jeitzaleen bitoki	Har ezazu!	Lotsagabe	
IZENA			
Zortea, polita			
			Urania
			Nafarroako herria
Harria jaur-titzeko uhala	Gure planeta	Alaraldeko herri bateko	
Izaki bel-dungarriak	DEITURA	Arioak	
		Kontso-nantea	Zirkonia
		Lamu	Kontsonante bikotza
Joan den guen		Jarleku mota	
Mingots		Interjekzioa	
		Gauetokoa	
		Edari bizi	
Europar es-tatu bateko		Bokala	Atxi
Izen arabiarra		Tilania	
		Eskalea	
		Bokala	
Zakutua		haur hize- ran, haur	

❖ Txirrindulari orozkoarra

ERRAZA

	6	3			5	7
5		2		6	4	
8		4	7	3	6	2
	4		2	7		6
	5			3	8	
2		7	6			3
	2			4	8	6
	3	6	8		7	5
7			5			4

				4	3	2
	2		7	3	5	6
8		3			7	
2	6	8				5
						2
		5	4	8	2	
			7	1		
5	1		2		9	3
			6	5	9	4

ZAILA

		5	2			7	6
	6			3			2
	8		9	1			
	3					6	
	4	2					
8	9			5	3		
7			3			8	
						5	
			5		4	6	

			7	4			
	6		2	9			
		7	3				1
2					7		
		8		2		4	5
5	9				8		
	3				9	8	
			8	3			
		1				2	

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



Lan-eskaintzak

- ELEKTRIKARIA. **Laudio**
- BIGARREN HEZKUNTZA ETA BATXILERGOKO IRAKASLEA. **Laudio**
- UGAOKO HERRIKO TABERNARAKO KUDEATZAILEA ETA TABERNARIA. **Ugao**
- ADMINISTRARIA, ARABIAARRA ETA INGELESA MENPERATZEA EZINBESTEKOA. **Laudio**
- ADMINISTRARIA, POLONIAARRA ETA INGELESA MENPERATZEA EZINBESTEKOA. **Laudio**
- GIZA HARREMANETARAKO ARDURADUNA, HAUTAKETAN ADITUA. **Laudio**
- INKESTATZAILEA. **Laudio**
- AUTO SALTZAILEA. **Amurrio**
- ERIZAINA ETA PREBENTZIORAKO TEKNIKARIA. **Tubacex**

LAN-ESKAINZA GEHIAGO AIARALDEA.EUS ATARIAN

Zozketa

Hortz-garbiketa bana Laudioko eta Amurrioko MundiSalud egoitzetan.



Parte hartu **www.aiaraldea.eus web** web atariko asteroko zozketetan.

Aiaraldea txiki

Zakarrontzia

Martintxo zakarrontzira zerbait botatzen ari da.
Zer ote da? Matematika azterketa? Egurdiko azalorea?
Isilka jan dituen goxokien bildukiak? Arrebaren jostailua?
Zer izan liteke zure ustez? Marraz ezazu.



Lopez Lore

Lagundu erleari erlaunt
loreetako hizkiek esan
ordenean beheko biribila



Emaizak

Zazpikoa

Bi irudi hauen artean dauden aldeak bila itzazu. Zazpi dira guztira.




Lopez Lore



1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100

zara iristen. Bidean aurkituko dituzun
a zahar bat osatzen dute. Idatz itzazu
letan eta jakingo duzu esaera zein den.



ZazpiKoa

Bi irudi hauen artean dauden aldeak bila itzazu. Zazpi dira guztira.



Kontra

Mundutik Aiaraldera

Mike -Flickr-

Darrin Wood

JAIOTERRIA
OHIO, ESTATU BATUAK (1965)

BIZILEKUA
LAUDIO

BIDAIAREN XEDEA
**KAZETARI GISA LAN EGITEN
EGON DA EUSKAL HERRIAN,
ESPAINIAN EDOTA MEXIKON**



“Zapatisten komandante bat nintzela esatera iritsi ziren”

Darrin Woodek sei urte dar-matza Laudion bizitzen. Ibilbi-de oparoa egin du ikerketa ka-zetari gisa. Egin, Ardi Beltza eta Kale Gorria agerkarietan egin du lan eta Txiapasen ere urte asko igaro ditu.

Estatu Batuetakoa zara, baina munduko hainbat txokotan egon zara bizitzen. Nolatan?

Unibertsitatean nengoela beste herrialde batzuetan ikasteko programa batean sartu nintzen. Londresera joan nintzen sei hilabete igarotzera. Pragan ere egin nituen egonaldia. Emakume bat ezagutu nuen eta Espainiara bizitzera joan nintzen berarekin. Madrid eta Zaragoza artean igaro nuen 90. hamarkada osoa.

Ardi Beltza aldizkarian lanean hasi nintzenean, baina, Mexikora joan nintzen. Bertan egon nintzen aldizkaria itxi zuten arte. Bertatik jarraitu nuen Pepe Reiren-aldizkariaren zuzendariaren- atxiloketa.

Mugimendu zapatista pil-pilean zegoen Mexikora joan zine-nean.

1994an -altxamendu zapatista-ren urtean- Mexikon nengoen dokumental bat grabatzen. Euskal Herri-ara joan nintzen gero, egindako lana aurkeztera. Hainbat jaialditan aurkeztu genuen pelikula, eta herrietan ere aurkeztu genuen. Laudion eta Amurriego inguruetan, besteak beste. *Testimonio de Ejido Morelia* da filmaren izena.

Ameriketako Eskolaren inguruan ere egin nituen ikerketak. Giza eskubideen urraketeetan inplikaturako latinoamerikako militarren baten izena irakurtzen nuen bakoitzean koadernobatean apuntatzen nuen.

Artxibo bat osatu nuen horrela, eta militar horietako askok Ameriketako Eskolan ikasi zutela ondorioztatu nuen. Txiapasi buruzko eguneroko albisteentxosten bat osatu nuen horrela. Behin Marcos Komandanteordeak komunikatu

batean aipatu ninduen, nire helbide elektronikoa jarriaz (barreak).

Zer dela eta?

Ez dakit (barreak). Heriotza mehatxuak jasotzen ari nintzen paramilitarretatik, egiten nuen lanagatik.

Kazetari gisa presio ugariri egin behar izan diozu aurre, beraz.

Ni zapatisten komandantea nintzela esatera iritsi ziren. Egun batean ordenagailua piztu eta Fronte Zapatistaren mezu bat jaso nuela ikusi nuen. PRI alderdiko artikulatu bat erantsi zidaten. Nire izena eta bizilekua aipatzen ziren artikulatu horretan, komandantea nintzela esanez eta Madrildik Mexikora polizia “despistatzeko” nentorrela esanez (barreka). Ergelak ziren gero!

Ardi Beltza itxi zutenean lanik gabe geratu nintzen. Lagun batek irakasle lanpostua eskuratu zidan Guadalajarako Unibertsita-

tean. Nazioarteko harremanei eta gatazka armatuei buruzko ikastaroak eman nituen bertan.

Eta nola iritsi zinen Laudiora?

1992. urtean oporretan nengoen nire bikotearekin. Andaluziako hondartzetan egon ginen eta Laudio-ko bikote bat ezagutu genuen bertan. Ez zituzten tapak ezagutzen eta elkarrekin joan ginen tabernetara. Oso lagun onak egin ginen. Bilbora zer edo zer egitera joan behar nintzenean Laudion geratzen ginen, eta trenea hartzen nuen gero.

Madrilen nengoela Ciriaco apai-za ezagutu nuen. Laudio-ko zela esan zidan eta harrituta geratu nintzen. Nire lagunak ezagutzen zituen gainera, berak batailatzen zituen eta. Madrilo Euskal Etxeko irakasle bat Laudio-ko zen baita ere, eta azkenean hona etorri nintzen bizitzera, 2012an. Hilabete batzuk igaro nituen Menoion bizitzen.

OHIO



DESKRIBAPENA

Estatu Batuak osatzen duten 50 estatuetako bat da, zazpigarren populatuena. Era berean, herrialdeko estatutik industrializatuenetako bat da, ikatz-mehatzeek, nekazaritzak eta turismoak ere indarra duten arren. Egun Alderdi Errepublikarrak gobernatzen du Ohion. Iazko hauteskundeetan Trumpek lortu zituen boto gehien. Iaz aktibatu zuten heriotza zigorra berriz, hiru urtez aplikatu gabe egon ostean.

AZALERA

116.096 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

11,6 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Ingelesa.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea.
Laudio, Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

